

# ek!

**eta kitto!**  
euskara elkarteak

2026ko otsailak 13 · 1385 zenbakia



## ZINEMATIK TONTORRERA

San Juan Kalea, 11

**EIBAR**  
SUPERMERKATUA



Egunero zabalik  
- Baita igande eta  
jai egunetan  
- 09:00- 22:00

Doako etxerako  
zerbitzua

Harremanetarako

☎ 943 20 61 60

📞 747 40 39 77

- [supermercadoeibar@gmail.com](mailto:supermercadoeibar@gmail.com)

# GREMIOEN GIDA

## ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac  
Tfnoa. 943 12 73 50  
www.trinmer.com



**TELEKOMUNIKAZIOAN  
PROFESIONALAK**

## ELEKTRIZITATEA



**THELECEER**  
TELEKOMUNIKAZIOAK  
ELEKTRIZITATEA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK  
24 orduko  
urgentziak  
610 532 922 www.thelecer.com

## KRISTALAK



**ACHA Kristaldegia**  
J.A. GISASOLA, 4 - ac  
**KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK**  
info@cristaleriaacha.com eta faxa:  
943 203 903

## AROTZAK



**ulmar**  
S.L.  
metalezko  
eraikuntzak

aluminiozko eta PVC-ko  
**AROTZEGIA**  
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea  
Tfnoa: 943 12 13 67 www.ulmar.net

## IGELTSEROAK



Eraikuntza  
Erreformak  
Igeltseritza  
**irazabal**  
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...  
aldatzen laguntzen dizugu  
etorkizun hobear  
goza dezazun

Azitaín Industrialdea, 3 H Pabilioia  
Tfnoa. 943-120108  
www.irazabal.net

## PINTURAK



**IÑAKI**  
pinturak eta lurrak  
Tel. 647 902 208  
Bidebarrieta, 21 - behea

## GARBIKETAK



**Garbihome**

Etxe, atari, bulego, merkataritza lokal  
eta komunitateetarako garbiketa  
zerbitzuak eskaintzen ditugu

642 456 472  
info@garbihome.com  
garbihome.com



# Jarraitu gaitzazu!

BIDEOAK YouTubean ikusgai



Koko-marru eta koko-dantzariekin hasi genituen aratosteak joan den asteburuan eta jaiak dagoeneko egin du eztanda Eibarren.

Gure webgunean eta sare sozialetan egun hauetako irudiak ikusi ahal izango dituzue.



[www.etakitto.eus](http://www.etakitto.eus)



**eta kitto!**  
euskara elkarteak



## ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarteak

## HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

## TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

## ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

## ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

## ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Naia Aizpurua,

Irati Alvarez, Ekhi Belar, Ander

Fernandez, Silbia Hernandez,

Iruñe Jaio, Yanire Sagredo,

Oihane Zabala

## ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

## KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

## ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

## DISEINU ARLOA

Iruñe Jaio

## JATORRIZKO DISEINUA

Maku Oruezabal

## HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

## PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

## TELEFONOA

943 20 67 76

## AZALA

Into Altai

## BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

## TIRADA

7.800 ale

## INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

## COPYRIGHT-A

...eta kitto!

## LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta  
Gipuzkoako Foru Aldundiak  
lagundutako aldizkaria



**EIBAR**  
Udala | Ayuntamiento



Gipuzkoako Foru Aldundia

# Eskutitzak



## Zutik, arriskuan eta inoren erantzunkizunik gabe

Eibarretik Bilbora doan autobusean gero eta ohikoago da irudi bera: jendez gainezka doan ibilgailua, eserleku guztiak beteta, eta bidaiari ugari zutik ibilbide osoan zehar. Egoera horrek galdera kezagarri bat planteatzen du: nola uzten da hori normalizat hartzea? Ez naiz hamar minutuko ibilbide laburrez ari: Eibar-Bilborako bidea luzea da, bihurgunez beteta, eta askotan trafiko handiarekin. Baldintza horietan bidaiariak zutik joatera behartzea segurtasunaren aurkakoa da. Ez da erosotasun kontu hutsa, arrisku kontua da. Bat-bateko balaztatze batek, istripu txiki batek edo errepideko gorabehera batek ondorio larriak izan ditzake.

Harrigarriena da egoera hori ez dela salbuespena, aitzitik, eguneroko ohitura bihurtu da. Enpresaren arduradunek jakin badakite zein ordutan dagoen eskaera handiena. Administrazio desberdinek ere badituzte datuak. Hortaz, galdera xume baina zuzena da: Zergatik ez da neurririk hartzen? Zergatik ez dituzte autobus gehiago jartzen puntako orduetan? Zergatik onartzen da jendea sardina-lata baten moduan bidaiatzea? Badirudi herritarrok ohitu egin garela eskubide gutxiagorekin bidaiatzera. Baina ezin dugu onartu segurtasuna bigarren mailan uztea. Ez da logikoa autopistatik doan autobus batean jendea zutik joatea, eta are gutxiago hori modu sistematikoan gertatzea. Orduan, zer gertatu behar da? Istripu bat? Zaurituak? Hedabideetan agertzea? Tristeia litzateke horretara iritsi behar izatea. Aldaketak ez luke tragedia baten ondorio izan beharko, baizik eta arduraren eta zentzuzko kudeaketaren emaitza.

Herritarrok garraio publiko duina, segurua eta planifikatua merezi dugu. Eibar eta Bilbo bezalako hiri garrantzitsuen arteko lotura ezin da horrelako baldintzetan mantendu. Zutik joatea ez da irtenbidea, arazo baten sintoma da. Eta arazo horri behingoz, aurre egin behar zaio.

**Patrizia Marzana Uribarri**

## Hamaika ikusteko jaioak gara!

Txakur-kaka eta txiza bazter guztietan zabaltzea nahikoa ez eta, orain kaka-poltsak zintzilikatzeari ekin diote batzuk. Eibar eta Elgoibar lotzen dituen bidegorrian ateratako argazkia da hau, urtarilaren 26an. Erotu egin al gara? Ze nazkagarrikeria da hau? Txakur jabeok, mesedez, eman duintasun apur bat herriari!

**A. Aramberria**



## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**PLAZA** → Merkatua. “Egunero egitten dot plazia goizian goizago jaikitta”. Enparantza. “Han euken Untzagako plazan euren trepetxuori kajoi haundi baten kontra”. Proba leketan idiak ibiltzen diren esparrua, galtzada. “Plaza errezak eta zaillak dagozak. Harrixak galtzariari gehixago edo gitxiago eusten detsan araberakua”. Idiek egindako ibilbidea. “Etxebarriko idi pariak irabazi dau, bigarrenak baiño plaza bat gehixago eginda”.



Idurre Iriondo

### Farmaziak

|                                             |
|---------------------------------------------|
| <b>BARIXAKUA 13</b>                         |
| <b>EGUNEZ   Zukueta</b> (San Agustin 5)     |
| <b>ZAPATUA 14</b>                           |
| <b>EGUNEZ   Elortza</b> (Juan Gisasola, 18) |
| <b>DOMEKA 15</b>                            |
| <b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxeberría, 7)  |
| <b>ASTELEHENA 16</b>                        |
| <b>EGUNEZ   Mendinueta</b> (Urkizu, 6)      |
| <b>MARTITZENA 17</b>                        |
| <b>EGUNEZ   Azkue</b> (T. Etxebarría, 4)    |
| <b>EGUAZTENA 18</b>                         |
| <b>GUNEZ   Zukueta</b> (San Agustin 5)      |
| <b>EGUENA 19</b>                            |
| <b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxeberría, 7)  |
| <b>BARIXAKUA 20</b>                         |
| <b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxeberría, 7)  |

**GAUEZ BETI**, 2026an,  
**Elortza** (Juan Gisasola, 18)

### Telefono jakingarriak

|                          |                             |
|--------------------------|-----------------------------|
| SOS deiak                | 112                         |
| Pegora                   | 010                         |
| Udaletxea                | 943 70 84 00                |
| Portalea                 | 943 70 84 39                |
| Udaltzaingoa             | 943 70 84 24                |
| Mankomunitatea           | 943 70 07 99                |
| Debegesa                 | 943 82 01 10                |
| KIUB                     | 943 20 38 43                |
| Kirol Patronatoa         | 943 20 32 40                |
| Epaitegia                | 943 03 34 00                |
| Iberdrola                | 900 17 11 71                |
| Naturgas                 | 902 12 34 56                |
| DYA Larrialdiak          | 943 46 46 22                |
| Gurutze Gorria           | 943 22 22 22                |
| Eibar Ospitalea          | 943 03 29 00                |
| Mendaro ospitala         | 943 03 28 00                |
| Anbulategia              | 943 03 25 00                |
| Torrekoa                 | 943 03 26 50                |
| Errepideak               | 902 11 20 88                |
| Ertzaintza               | 943 53 17 00                |
| Eusko Tren               | 944 33 33 33                |
| Lurraldebus              | 900 30 03 40                |
| Pesa                     | 900 12 14 00                |
| Taxiak                   | 943 20 30 71 / 943 20 13 25 |
| Andretxea                | 943 54 39 38                |
| Alkohol. Anon.           | 629 14 18 74                |
| Al-Anon / Alateen        | 650 26 59 63                |
| Grupo Egun Bat (Jokozale |                             |
| Anonimo eta Familiak)    | 699 37 75 20                |

### Hildakoak

- **Josefina Unzetabarrenetxea Mugerza**. 96 urte. 2026-II-06.
- **Maximino Velasco Gonzalez**. 86 urte. 2026-II-06.
- **Jose Luis Uribeetxeberria Marquez "Pepe"**. 74 urte. 2026-II-08.
- **Jose Cordoba Bezares "Txokorra"**. 79 urte. 2026-II-09.
- **Eutiquiano Arroyo Gomez "Copi"**. 88 urte. 2026-II-09.
- **Javier Iglesias Carrera**. 86 urte. 2026-II-09.
- **Catalina Guridi Errasti**. 91 urte. 2026-II-10.
- **Pilar Iurrebaso Iruarizaga**. 2026-II-11.



## Haur-parkeak berritu eta estalitako espazio berriak sortzea proposatu du EAJ-PNV-k

**S.H.** Eibarko EAJ-PNV udal-taldeak hiriko haur-parkeak hobetu, handitu eta berriak sortzeko proposamena aurkeztu du, haur guztientzat egokitutako jolasgune “erakargarri, atsegin eta entretenigarriak” diseinatzeko asmoz. Jeltzaleen arabera, gaur egun dauden parkeak txikiak dira, eta antzeko jolasak dituzte gehienek; horregatik, jolas fisikoak, sormen-jokoak, gizarte-jolasak eta zentzumen-jokoak uztartuko dituzten espazio berritzaileak beharrezkoak direla uste dute. Halaber, espazio estaliak sortzearen garrantzia nabarmen-

du dute, bai dagoeneko dauden guneak egokituz, bai estalitako jolasgune berrietarako aukerak aztertuz. Ingurumenaren ikuspegia eta jolasguneen funtzio pedagogikoa ere hartu dituzte kontuan. Neurri zehatz gisa, Ardantzako parkean tirolina bat jartzea, eta Txaltxa Zelaiko ur-jolasen antzekoekin gune gehiago sortzea proposatu dute. Eta, parkeak haur eta familien topagune direnez, euskararen presentzia eta erabilera zaintzea funtsezkoa ikusten dute, haurrak txikitatik euskaraz bizi eta jolasteko.

## Serigrafia tailerra egingo dute otsailaren 21ean Ipuruako Merkatu Plazan

**S.H.** Ipuruako Merkatu Plaza elkarteak serigrafia tailerra antolatu du otsailaren 21erako (zapatua). Tailerra goizez izango da, 11:00etatik 13:00etara, eta izena emateko zein informazioa eskatzeko Ipuruako Merkatu Plazako arduradunekin kontaktuan jarri beharko da.



## AUTUAN

### OTSAILAREN 19an AURKEZTUKO DU JESUS EGIGURENEK BERE LIBURUA

**S.H.** Datorren astean aurkeztuko du Jesus Egigurenek *Memorias políticas. El infierno de la transición vasca. Reflexiones. El fin de ETA según ETA* bere liburua Eibarren. Aurkezpen-ekitaldia egunean (otsailak 19) egingo du, 18:30ean Portalean (areto nagusian). Berez, liburua urtarrilean aurkeztekoa zen, baina Adamuzen gertatutako tren-istripuarengatik bertan behera laga zuten.



### MUSEOKO ERAKUSKETARA BISITA OTSAILAREN 21ean

**S.H.** Otsailaren 21ean (zapatua) egingo dute doako bisita gidatua Eibarko Armagintzaren Museoa, hilerio bezala, erakusketa iraunkorra hobeto ezagutu nahi dutenek horretarako aukera izan dezaten. Betiko moduan, bi talde osatuko dituzte izena ematen dutenekin (bakoitzean 20 lagun onartuko dira gehienez). Euskarazko bisita 17:00etan hasiko da, eta ondoren egingo dute gaztelaniazkoa, 18:30ean. Izena emateko edo informazio gehiago eskatzeko, 943 708 446 telefono zenbakira deitu edo museoa@eibar.eus helbidera idatzi daiteke.







## Orbeako muskulazio-gela berriztuko dute, punta-puntako makinekin

**S.H.** S Eibarko Udalak iragarri du muskulazio-gela eraberrituko dela, 50.000 euroko inbertsioa egingez, eta makina berriak eskuratzeko lizitazioa martxoan egingo dela. Ekimenarekin instalazioak modernizatu nahi dituztela diote, “eta bizilagunei espazio funtzionalagoa eskaini, indarra entrenatzeko, udalak bizi-ohitura osasungarriak eta adin guztietako kirola sustatzeko egiten duen apustuarekin bat etorritz”.

Era askotako ekipamendua aurreikusten da, hanketarako, ipurmasaitetarako eta bizkarrerako makinak barne; hip-thrust, leg extension, leg curl, bular-press edo arraun bertikala, besteak beste. Horrez gain, funtzio anitzeko ekipamendua jarriko da, eta baita kaiola gidatuak eta bizepserako eta bularraldeko presserako banku espezifikokoak ere.



## Mekola eta San Juan arteko pasealekuaren berrurbanizazio-lanak laster hasiko dira

**S.H.** Eibarko Udalak Mekola eta San Juan arteko pasealekuaren berrurbanizazio-lanak abiarazteko azken prestaketetan dihardu. Proiektua Estudios y Obras Rekalde SL enpresari adjudikatu diote, eta lanek 433.269 euroko aurrekontua izango dute. Jarduketaren trenbidearen gainean egingo denez, Udala Euskotrenekin ari da beharrezko baimenak izapidetzen. Administrazio-izapideak aurreikusitako epeen barruan amaitzen badira, obrak datozen asteetan hasiko dira, azken tramiteak formalizatu ondoren.

Proiektuaren barruan, pasealekuko zoladura osorik berritzea

aurreikusten da, irisgarritasuna hobetzearekin batera. Halaber, hiri-altzariak aldatuko dituzte eta lurpeko azpiegiturak eguneratuko dira, saneamendua, hornidura-sarea eta euri-uren drainatzea barne. Jarduketak hiriko hainbat auzo lotzen dituen pasealekuaren funtzionaltasuna, segurtasuna eta kalitate estetikoak hobetzea du helburu.

Udalak jakinarazi duenez, aurreikusitako lanez gain, jardineira, banku eta paperontzi berriak jarriko dituzte, baita atarietarako sarbide-mailak mantendu ere, lanek irauten duten bitartean “auzotarren erosotasuna eta eremuaren eguneroko jarduera babesteko”.



**Izadi**  
**LORADENDA**  
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE  
NATURAL ETA  
LEHORRAK  
EZKONTZETARAKO  
LORAK  
ZENTROAK  
ERRAMUAK  
*Enkarguak etxera*



**ek!**

Zure publikitatea  
herriko aldizkarian  
**688 621 535**  
publizitatea@etakitto.eus



## Gerra-frontearen ibilbide historikoaren bisitarako izen-ematea zabalik dago

**S.H.** Eibarko Udalak Gerra Zibileko gerra-frontearen ibilbide historikoaren bisita gidatua antolatu du otsailerako. Mendi ibilbidea otsailaren 22an, domekan, izango da, 11:00etatik 14:00etara. Bisita euskaraz egingo da, eta Arrateko Gerra Zibileko Interpretazio Zentroan hasiko da. Ibilbidean zehar, tes-tuinguru historikoaren laguntzaz, Gerra Zibilean Eibar inguruan izan ziren frontearen kokagune esanguratsuak ezagutzeko aukera izango dute parte-hartzaileek.

Jarduera dela eta, Gerra Zibileko Interpretazio Zentroa ohiz kanpo irekiko dute egun horretan, 10:00etatik 11:00etara, bisita hasi aurretik bertaratu direnek zentroa ezagutzeko aukera izateko. Parte hartu nahi dutenek otsailaren 18ra arte eman dezakete izena, Eibarko Udalaren webgunean.



## Herrien arteko elkartaratzea deitu du Mendiak Bizirik-ek

**S.H.** Mendiak Bizirik elkarteak herrien arteko elkartaratzea antolatu du martxoaren 7rako (zapatua). Topinburun elkartuko dira, 11:00etan, eta herri bakoitzerako hitzorduak ere lotu dituzte: eibartarrak Urzikutik abiatuko dira, 09:30ean.

## Pentsioen dekretua onartuta ere, oraindik eskaera asko betetzeke daudela diote

**S.H.** Astelehenero bezala, aste honetan ere pentsio publiko eta duinen aldeko elkarretaratzea egin da Untzagan, Eibarko Pentsionisten Taldeak deituta. Bertan bildutako ia ehun lagunen aurrean adierazi zuten, pentsioen dekretua “seguruenik” onartuko dute azkenean, baina pentsiodunek ez dute uste hori nahikoa denik, “eskaera asko egiteke daude eta”. Gipuzkoako Pentsiodunek aste honetako kontzentrazioetan irakurtzeko egin duten idatziaren arabera, “joan den asteko asteartean (otsailak 3) publiko egin zen Pedro Sanchezen Gobernuak pentsioak handitzen dituen Lege Dekretua eta *ezkutu soziala* duen Lege Dekretua onartu zituela. Nolanahi ere, dekretu horiek Diputatuen Kongresuak baliozkotu behar ditu, astebeteko edo bi asteko epean, seguruenik. Itxura guztien arabera, aurrera aterako da, gutxienez, pentsioak handitzeari buruzko Lege Dekretua”.

Euskal Herriko zein estatuko beste herrietako pentsiodunen plataformek aurreko dekretuaren indar-

gabetzeari emandako “berehalako erantzuna” ospatzeko modukoa dela diote, “gure eskaerak lortzeko bermerik onena borroka dela erakusten duen beste adibide bat” dela gaineratuta. Hala ere, beraien haserre berretsi nahi dute, “UPN, PP, VOX eta JUNTS alderdiek pentsioen igoerari uko egin diotelako”.

### Falta diren eskaerak betetzea

Gobernuaren erabakiarekin ez direla konformatzen argi laga nahi dute, eta hainbat eskaera betetzea exijitzen dute pentsiodunek: pentsioen errebalorizazio automatikoa, bizitzaren kostuaren benetako igoeraren arabera; urte amaierako ordainsaria berrezartzea, pentsioen eroste-ahalmenaren urteko galera konpentsatzeko; gutxieneko pentsioen hobekuntza nabarmena, “igoera gorabehera miserableak izaten jarraitzen baitute”; eta gutxieneko pentsioa lanbide arteko gutxieneko soldatarekin (LGS) parekatzea, “genero-arrakalaren kronifikazioa eta adineko pertsonen diru-sarreraren eskasia eragozteko”.



# Asteburuan Aratosteen erritmora dantzatzeko prest

Eibartarrak prest gaude berriro ere Aratosteei ongietorria emateko, eta gogotsu gaude aurren ere neguaren erdian giro alaia zabaltzen duten jai hauek ospatzeko. Gaurtik hasita domekara bitartean (otsailaren 13tik 15era) herriko kaleak kolorez, musikaz eta koko-jantziz beteko dira, adin guztietako herritarrentzako jarduera ugarirekin.

SILBIA HERNANDEZ

Gaur (otsailak 13, Barixaku Erregularra) hasiko da jaietako asteburu nagusia. 20:00etan Kaldereroen kalejira aterako da Urkizutik Untzagaraino, ohiko doinu eta jantziekin Aratosteetako giroari hasiera emanez. Ondoren, 20:30ean, Klub Deportiboko leihotik botako da Aratosteetako pregoia, jaiak ofizialki hasteko. Aurren Sofia Machin abeslariak izango du herritarrek ospakizunetan murgiltzera gonbidatzeko ardura.

Zapatua izan ohi da egunik jendetsuena, eta bihar ere hala izatea espero da (eguraldiak ez badu jaiaren oztopatzen). Eguerdian, 12:30ean, kuadrillen desfile koloretsua abiatuko da, Ustekabe eta UK03 fanfarreen laguntzarekin, lehiaketarako izena eman duten taldeek koko-jantziak herriko kaleetan zehar erakusteko. Ordutegi berean, Untzagan photocalla egongo da, eta arratsaldean, Errebalen puzgarriak jarriko dituzte, familiariek eta haurrek goza dezaten. 18:30ean txokolatada egingo da, eta ondoren umeentzako berbena hasiko da Bada Giro taldearekin; 19:30ean, berriz, desfileko, tabernetako eta kartelen lehiaketetako sariak banatu-



ko dira. Jai-giroa ez da hor amaituko: iluntzean kale animazioa izango da Latuna Bando txarangarekin, eta 23:30etik aurrera dantzaldia egingo da Untzagan. Domekan, otsailaren 15ean, jaiak erritmora apur bat lasaituko du, baina programazioa goizetik hasiko da: 11:00etan Usartza Txistulari Bandak kalejira egingo du eta, arratsaldean, 17:00etatik aurrera, umeentzako playback lehiaketa egingo da, Untzagan, ...eta kitto! Euskara Elkarrekin antolatuta. Jarraian, 18:30ean, DJ Arnoren musika alaiarekin agurtuko dugu asteburua, baina Aratosteak ez dira martitzenera arte amaituko: Aratoste Martitzenean umeentzako jolasak egingo dira Untzagan, Astixaren eskutik (17:00etatik 18:30era) eta, jarraian, Sardinaren entierro txikia, Adolfo Jainaga eta bere ikasleen trikitixak lagunduta.



**Eskualdatzea**

**Loteria Mistoaren salmenta puntua salgai.**  
**Isasi kalea 2, Eibar (Gipuzkoa)**



**HEDILLA ABOGADOS**  
Leopoldo de la Hoz

Urteko sarrerak:  
**+81.000 €**

Alokairua:  
**Prezioa kontsultatzeko**

Prezio jaitzia:  
**110.00 €**

Hedilla Abogadosen, estatu mailako eskualdatzeetan espezialistak gara

www.hedillaabogados.com / 608 305 850

# KOKO DANTZAK



Otsailaren 7an, Kezka Dantza Taldeak antolatutako koko-dantzekin hasi ziren Aratosteak Eibarren. Goizean, Errebalen, lehen kantu eta dantzak eskaini zizkieten merkatu plazako baserritarrei, eta bazkal ordura arte Mandiola eta Otaola-Kiñarra auzoetan koko-eskean ibili ziren. Arratsaldean, herrian kalejira egin zuten iluntzera arte, Mautitxa Txarangaren laguntzarekin, eta 21:00ak aldera Eibarko Klub Deportivoan amaitu zuten.













### AURREKO SAIOAN

Eskualdeko bertsolariei herriz herriko jolas bat proposatu genien, elkarren arteko harremanak eta sare-tzea indartzeko.

### HURRENGO SAIOAN

Debabarreneko herri batzuetako inauterietako ohitura eta bitxikeriak ezagutuko ditugu.

## ALBISTEAK

Langabezia-tasak behera egin du Eibarren (1.511 langabe) zein Debabarrenean (2.676).



Aurtengo edizioan Itzulia-ren etapa erregina Eibarren jokatu da, azken aurren egunean.



## Ots 13

|          |                                                          |                |                                    |
|----------|----------------------------------------------------------|----------------|------------------------------------|
| INAUT.   | <b>HARTZA EGUNA</b>                                      | 18:30          | SANTIXAPEKO ITU-<br>RRIXAN (ERMUA) |
| MUSIK.   | <b>BERTSIO KONTZERTUA</b><br>J.M ATLANTIDA<br>MUSIKARIAK | 22:00          | ASIGOR TABERNAN<br>(SORALUZE)      |
| INAUT.   | <b>DEBAKO BANDA</b><br><b>GAZTEAREN KALEJIRA</b>         | 17:00          | MUSIKA ESKOLA<br>(DEBA)            |
| INAUT.   | <b>TULUN-TULUN</b><br><b>DANBA BATUKADA</b>              | 18:00          | FORUEN PLAZA<br>(DEBA)             |
| BERTSO.  | <b>BERTSO AFARIA</b><br>ANDONI EGAÑA,<br>AITOR MENDILUZE | 21:00          | LUBINA ELKARTEA<br>(DEBA)          |
| TXAPELK. | <b>PETANKA TXAPELKETA</b>                                | 18:00          | PILOTALEKUA<br>(MALLABIA)          |
| INAUT.   | <b>KALDEREROAK +</b><br><b>PREGOIA</b>                   | 20:00<br>20:30 | URKIZU (EIBAR)<br>DEPOR (EIBAR)    |

## Ots 14

|        |                                                       |                     |                           |
|--------|-------------------------------------------------------|---------------------|---------------------------|
| INAUT. | <b>MOZORRO</b><br><b>LEHIAKETA KALEJIRA</b>           | 12:00               | PLAZA<br>(ERMUA)          |
| INAUT. | <b>BAZKARIA, KALEJIRA,</b><br><b>KARAOKEA, etab.</b>  | 12:30TIK<br>AURRERA | (ELGOIBAR)                |
| INAUT. | <b>TXARANGAK,</b><br><b>DANTZALDIA, etab.</b>         | 13:00TIK<br>AURRERA | (SORALUZE)                |
| MUSIK. | <b>FOSIL ETA</b><br><b>DAWANADAU</b>                  | 20:00               | GAZTETXIA<br>(SORALUZE)   |
| INAUT. | <b>KALEJIRA, DESFILEA,</b><br><b>TXARANGA, MUSIKA</b> | 10:00TIK<br>AURRERA | (DEBA)                    |
| MUSIK. | <b>KARAOKEA +</b><br><b>KONTZERTUA</b> ACeXSYNc       | 20:00<br>02:30      | GAZTETXIA<br>(MUTRIKU)    |
| INAUT. | <b>DESFILEA, PUZGARRIAK,</b><br><b>BERBENAK, etab</b> | 12:30TIK<br>AURRERA | (EIBAR)                   |
| INAUT. | <b>BAZKARI AUTOGEST.</b><br><b>DJ TRACK-A</b>         | 14:00               | PILOTALEKUA<br>(MALLABIA) |

## Ots 15

|        |                                            |                |                    |
|--------|--------------------------------------------|----------------|--------------------|
| MUSIK. | <b>PLAYBACK LEIAKETA</b><br><b>DJ ARNO</b> | 17:00<br>18:30 | UNTZAGA<br>(EIBAR) |
|--------|--------------------------------------------|----------------|--------------------|



# Emakume ingeniarien ahotsa, aurreiritzien gaineratik

Andretxean egindako emakume ingeniarien mahai-inguruan Naiara Romanet, Elena Idigoras eta Mari Luz Guenagak beren ibilbide profesionala eta esperientzia pertsonalak partekatu dituzte. Emakumeen presentzia, lan munduko errealitateaz eta oraindik indarrean dauden estereotipoen hausnartu dute, gazteei erreferenteak eskaintzearen garrantzia nabarmenduz.

Testua **IRATI ALVAREZ MALAXETXEBARRIA**



**2**015eko abenduan, Nazio Batuetako Batzar Nagusiak erabaki zuen zientzian eta teknologian emakumeek eta neskek jokatzeko duten rol kritikoa aitortu behar zela, eta horretarako otsailaren 11 ezarri zuen Neska eta Emakume Zientzialarien Nazioarteko Egun gisa. Ordutik, egun horren garrantziak gora egin du, eta helburu horrekin bat egiten dute emakume zientzialarien ahotsak ikusgai jartzea xede duten ekimenek.

Testuinguru horretan, otsailaren 9an emakume ingeniarien mahai-ingurua egin zen Andretxean. Hizlari izan ziren Mari Luz Guenaga, ingeniari informatiko eibartarra; Elena Idigoras, Biele Groupeko proiektu ingeniari eibartarra; eta Naiara Romanet, Azkoitiko ingeniari mekanikoa, gaur egun Laboral Kutxan lanean dabilena. Mahai-inguruaren helburua nesken artean ingeniartzarekiko interesa piztea eta oraindik ere indarrean diren genero-aurreiritziak zalantzan jartzea izan zen. Saioa hasi aurretik, hiru hizlarietako hitz egiteko aukera izan genuen. Elkarriketetan guztiek goraipatu dute mahai-inguruaren oinarrian dagoen Emakumeak Zientzian ekimena, emakume zientzialariak gazteen erre-



Naiara Romanet, Elena Idigoras eta Mari Luz Guenaga ingeniariak. IRATIALVAREZ

ferente izatea eta esperientziak partekatzea ezinbestekotzat jotzen baitute.

Hiru ingeniariak azaldu dute bakoitzak bide propioa egin duela ingeniartzara hurbiltzeko. Naiara Romanetek gaztetatik argi zuen ingeniartza izango zela bere hautua, matematikarekiko zaletasunak bultzatuta; hala ere, onartu du adar egokiena aukeratzeari ez zela erraza izan. Elena Idigorasek ere matematika eta fisikarekiko grina aipatu du erabakigarri gisa, eta etxeko erreferenteek izan duten eragina azpimarratu du. Mari Luz Guenagak, berriz, txikitatik medikua izateko ametsa izan zuen, baina ikasketen iraupena eta baldintzak kontuan hartuta, informatikara jotzea erabaki zuen, zientziarekiko interesa galdu gabe.

Emakumeen presentziari buruz galdetuta, hiru hizlariak adierazi dute belaunaldien arteko aldeak nabarmenak direla. Oro har, gaur egun emakume gehiago ari dira ingeniartza ikasten, baina joera hori ez da arlo guztietan berdina. Informatikan, esaterako, atzerapausoa antzematen dela azaldu du Guenagak, neska gutxiago daudelako lehen baino. Romanetek ere datu esanguratsu bat eman du: bere promozioan, ingeniartza in-

## Gustuko lan bat topatzea inportantea da, eta horretarako erreferente bat topatzea oso garrantzitsua da

dustrialean, 100 ikasletik 10 baino ez ziren emakumeak. Idigorasek, aldiz, bere kasuan emakumeen presentzia handiagoa izan zela azaldu du, %40 ingurukoa, baina ohartarazi du lan munduan oraindik ere arlo asko oso maskulinizatuta daudela.

Lan-esperientziari dagokionez, hirurek adierazi dute ez dutela diskriminazio zuzenik bizi izan emakume izateagatik. Romaneten esanetan, gaur egun ingeniartzaren barruan askotariko lan-baldintzak daude, eta bere esperientzian, emakume izateak ez dio ateari itxi lan-merkatuan sartzerakoan; ez du soldata-arrakalarik edo tratu desberdintasunik sumatu. Idigorasek ere antzeko iritzia du, eta azpimarratu lan-esparrua araututa dagoela, nahiz eta departamentu batzuetan emakumeen presentzia txikiagoa izan. Guenagaren kasuan, unibertsitateko irakaskuntzan aritu





## Emakumeak arlo hauetan gaude eta ekarpen baliagarriak egiten dizkiogu gizarteari eta erakundeei

da beti, eta bertan emakume gehiago daudela azaldu du; hala ere, onartu du zenbait egoeratan, modu sotilean bada ere, emakume izateak eragina izan dezakeela iritziak edo erabakiak baloratzera. Hiru hizlariak bat egin dute puntu batean: sarritan generoa, adina eta esperientzia nahastu egiten dira, eta zaila izaten da faktore bakoitzaren eragina bereiztea.

Ingeniaritzaren irudi sozialari dagokionez, oraindik estereotipo ugari daudela uste dute. Askotan lan gogor, fisiko eta maskulino gisa irudikatzen dela azaldu dute, baina eguneroko errealitatea askoz ere anitzagoa

dela azpimarratuz. Gaur egungo lan askok ez dute indar fisikorik eskatzen, eta talde-lana, antolaketa-gaitasuna eta arazoei irtenbideak bilatzeko trebetasuna dira funtsezkoak. Horren harira, argi adierazi dute gaitasuna ez dela genero kontua, prestakuntzarena eta jarrerarena baizik.

Gazteei heltzen zaizkien mezuek ere kezka sortzen diete. Hizlarien arabera, sarritan neskei beste ikasketa batzuk gomendatzen zaizkie, “errazagoak” edo “egokiagoak” direlakoan. Gurasoen aldetik ere zalantzak iristen direla azaldu dute: ingeniariitza zailegia izango ote den edo lan-baldintzak gogorrak izango ote diren. Asmo oneko gomendioak izan arren, uste dute halako mezuek emakumeak gogogabetu ditzaketela eta aukera batzuk baztertzea ekar dezaketela.

Horren aurrean, mezu argia helarazi nahi dute: interesak eta gaitasunak dira erabakigarriak, ez generoa. Gainera, gogorarazi dute ibilbide akademiko eta profesionalak ez direla beti zuzenak edo linealak. Ikasketa bat hasten bada eta espero bezain egokia ez bada, aldatzeko aukera badagoela azpimarratu dute, eta horrek ez duela porrota esan nahi, ikaskuntza baizik.

Halako topaketen garrantzia ere nabarmendu dute hiru hizlariak. Erreferenteak ikusaraztea funtsezkoa dela uste dute, gaztetan bestelako emakume ingeniariak ezagutzeak aukera berriak irekitzen dituelako eta norberak bere burua ispilu horretan ikusteko aukera ematen duelako. Horrez gain, emakumeen arteko sareak sortzea eta elkar ezagutzea ere balio handikotzat jo dute, lan-esparruan askotan bakarrik sentitzeko joera baitago.

Amaitzeko, hizlariak argi utzi dute ingeniariitza ez dela gutxi batzuentzat edo genero jakin batentzat gordetako esparrua. Emakumeak bertan daude, ekarpen garrantzitsuak egiten dituzte, eta ahots horiek entzunaraztea ezinbestekoa da. Interesa piztea da lehen pausoa; ondoren, bakoitzak bere bidea askatasunez aukeratzeko aukera izan behar du. Horretan, halako ekimenek bidea zabaltzen laguntzen dute.



Naiara Romanet, Mari Luz Guenaga eta Elena Idigoras ingeniariak Andretxean. IRATIALVAREZ



JON MIKEL MUJIKA

## Mozorroak

Heldu dira inauteriak, gure kaleak mozorroz betetzen diren egun horiek. Festa hauek badituzte zale sutsuak, bai eta gorroto dituzten pertsonak ere. Badago jende bat aratoste hitza entzun orduko herritik korrika alde egiten duena, eta badaude beste batzuk hilabeteak egiten dituztenak euren mozorroak pentsatu eta prestatzen.

Gaur egun mozorroak jai giroarekin lotzen ditugu nagusiki, parrandarekin, satirarekin... baina ikasi berri dugu Parisko Louvre-n lapurtzeko ere balio dezakeela mozorro arrunt batek.

Gizakiaren historian zehar kultura guztiek erabili dituzte mozorroak. XIII. mende ingurura bagoaz, Veneziako karnabaletan anonimotasuna bilatzeko janzten zituzten maskarak aipa ditzakegu. Denboran urrutiago joango bagina, greziako teatroetako aktoreak ikusiko genituzke, milaka ikusleren aurrean mozorrotuta paper desberdinak antzeztuz. Atzerago joan gintezke, euskal inauterien sustrai izan daitezkeen erritu paganoetara. Larru eta adar, izpirituak uxatu eta naturara urbildu nahiean. Urrutiago ere joan gintezke, gizakiak mozorroak kamuflaia moduan ehizarako erabiltzen zituen garaira.

Edo joan gaitezke oraindik haratago, mozorro primitiboenera, eboluzioak animalia bati eman dion mozorrorra: adibidez, Orkidea Mantis-a. Mantis familiako espezie honek lore itxura du, orkidea itxura. Bere kolore eta formarekin beste intsektu batzuk erakartzen ditu. Beste intsektuek lore batekin nahasten dute Mantis-a eta nektar gozoa aurkituko dutelakoan Mantisaren atzaparretan pausatzen dira. Lan erraza mantisarentzat

Ikusi dugu mozorro bat izan daitekeela hartz baten larrua, edo izan daitekeela batmanen traje bat, edo zergatik ez, programa politiko bat. Adibidez, eskuin muturra gaur egungo gazteriaren aurrean erakusten ari den aurpegia.

Penagarria da, baina gazte asko tximeleta inuxenteak bezala ari dira egan eskuin muturraren mezuen inguruan, nektar gozoaren promesa egin diete. Tamalez Mantisaren atzaparrak lepoan sentitzean bakarrik ikusiko dute maskararen atzean nor dagoen, eta beranduegi izango da.

**“Penagarria da, baina gazte asko tximeleta inuxenteak bezala ari dira egan eskuin muturraren mezuen inguruan, nektar gozoaren promesa egin diete”**



Testua **MAIDER ARANBERRI**

## Banatu dira X. Gilda Lehiaketaren sariak

Aste honetan jaso dituzte sariak X. Gilda Lehiaketako irabazleek. Aurreko astean hiru egunez jardun dute lehiari herriko hemezortzi tabernak eta barixakuan eman zuen ezagutzera epaia epaimahaiak. Martitzenean pasatu ziren ...eta kitto! Euskara Elkartetik ondo merezitako sariak jasotzera.

Gilda tradizional onenaren saria Zelai Bidek jaso du, “gilda tradizionalak izan behar duen guztia izateaz gain, osagaien kalitate eta gildaren zapore bikainarengatik”, epaileen berbetan. Gilda berritzaileenaren saria, berriz, Koskorrek bereganatu du. “Gilda tradizionalaren osagai guztiak ditu baina aldi berean berritzailea da, kalitatea eta zaporea alde batera utzi gabe. Horrez gainera, originaltasunean ere puntuazio altua jarri diogu”.

Hirugarren saria, urtero moduan, herritarrek erabaki dute, tabernetan emandako botoen bitartez eta



Topa-lekuk aurkeztutako gilda izan da irabazlea. Eta botoa eman duten herritarren artean ...eta kitto! Euskara Elkartek egin duen zozketan Teresa Arizmendik irabazi du bertoko produktuez osatutako otar ederra.

Azkenik, epaimahaiak, laugarren sari bat ere ematea erabaki du, euren hitzetan aipamen berezia merezi baitu, gilda berritzailearen sailkapenean, Trinketek aurkeztu duenak.



## Aratosteetako pregoia eta play back lehiaketa asteburuan

Atzo hasi ziren aratoste-jaiek jarraipena izango dute datozen egunotan ere, eta urtero moduan ...eta kitto! Euskara Elkartek jaietako egitarauan parte hartuko du bi ekintzarekin: batetik, gaur iluntzean, 20:45 inguruan, pregoia botako du Deporrek balkoitik Sofia Machin abeslariak eta, bestetik, domekan, play back lehiaketa egingo da Untzagako karpan 17:00etatik aurrera. 21 talde eta ia 100 gaztek jardungo dute lehiaketan.



## “Tote bag” poltsak pertsonalizatzeko ikastaroa antolatu du ...eta kitto!-k

Otsailaren 24rako, martitzena, “Tote bag” deritzen poltsak kustomizatu eta pertsonalizatzeko tailerra antolatu du ...eta kitto! Euskara Elkartek 7 urte-tik gorako edozeinentzat. Ikastaroa euskara elkartearen egoitzan egingo da (Urkizu 11 solairuartera) eta izen-ematea zabalik dago. Horretarako telefonoz deitu (943200918), mezua bidali (elkartea@etakitto.eus) edo [www.etakitto.eus](http://www.etakitto.eus) webgunera jo daiteke. Izen-emateak 10 euro balio du, 7 euro ...eta kitto!-ko bazkideentzat.

## ASTEROIDEIAK PROIEKTUA

Zientzia dibulgazioa euskaraz

# AURORAK: SUGARRETATIK POLOETARA

Aurorak, borealak iparraldean eta australak hegoaldean, Lurraren poloetatik gertu antzematen diren argi txundigarri bezain misterioitsuak dira. Gizakiok, orokorrean, hotzarekin lotzen baditugu ere, haien iturria askoz ere leku beroagoan dago: Eguzkiaren azalean, hain zuzen ere. Hemen, Eguzkiaren sugarretan hasi eta Lurreko paraje helezinenetan amaitzen den plasman bidea jorratuko dugu.

## EGUZKI-HAIZEA:

Fenomeno ikusgarri orok legeez, aurorek ere energia-iturri bat behar dute. Zorionez, aurreko artikuluan esan bezala, gure izarra beti jardunean ari den forjaria dugu, etengabeko energia-jarioa sortzen duena. Argi moduan askatutakoak, besteak beste, gure zerua argitu eta landareen fotosintesia ahalbidetzen du. Bestalde, partikula kargadunak isuriz ere (elektroiak eta protoiak, batik bat) askatzen da energia, eguzki-sistema osoa betetzen duen plasma-fluxu bat sortzeraino. Eguzkitik kanporantz bidaiatzen duen partikulen fluxuari eguzki-haize deritzo, eta etengabe protoiak eta elektroiek helarazten dizkigu Lurrera.


Gainera, Eguzkiaren azaleko aktibitatea altua denean, "flare" izeneko eztandak jazo ohi dira, zeintzuek, sarri, berehalako plasma-isuri bortitzak eragiten dituzten. Igortzen diren partikulak Lurrerantz bideraturik dau-

denean, eguzki-ekaitz bat datorkigula diogu, normalean baino partikula gehiago helzen baitira gure planetara (gehiagorako, ikusi eguzki-dinamoari buruzko artikulua asteroideiak.eus webgunean).

## MAGNETOSFERA - LURRAREN EZKUTUA:


Eguzkitik datozen protoiek eta elektroiek, ordea, gugana iritsi nahian, Lurraren babes-sistema topatzen dute: magnetosfera. Gure planetak eremu magnetiko propioa du, kanpo-nukleoan biraka dabilen burdin likidoak sortua, eta magnetismo horrek ezkutu-lana egiten du eguzki-haize gehiena desbideratuz. Lurraren eremu magnetikoak eguzki-haizeari aurre egiten dion zonaldeari magnetosfera deritzogu, eta gure atmosferaren azken geruza da. Izan ere, eskerrak eman beharko genizkioke magnetosferari, hura ezean, Eguzkiak igorritako partikulek Lurraren atmosfera aurretik eramango bailukete, putz egindako txikoria-belarra bailitzan. Begira bestela Marteri; noizbait lurrazalean ibaiak eta itsasoak eduki zituen planetan Bardeak gailendu dira, eguzki-haizeak atmosfera ia guztia lapurtu ahala.

Hala ere, ezkutu orok arrakalak dituen bezalaxe, partikula batzuk magnetosfera zeharkatu eta altuera baxuagoetara igarotzen dira. Eremu magnetikoa, baina, indartsuagoa da lurrazaletik gertuago, eta, elektromagnetismoaren legeek bideratuta, Eguzkiko partikulek Lurraren inguruan biraka amaitzen dute. Hau da, Van Allenen gerrikoak sortzen dira: partikula kargadunek eremu magnetikoak jarraitzen dituzte, baina Lurraren Ipar eta Hego Poloen artean erreboteka dabilta, ezin ihes egin, eta donut itxurako plasma-gerriko bat sortzen dute (ikusi 2. irudia). Gerriko horiek garrantzitsuak dira ingeniaritza espazialean,



**1. irudia.** Eguzki-haizearen (ur-dinez) eta Lurraren eremu magnetikoaren (gorriz) irudikapena. Kredituak: University of Waikato ([www.sciencelearn.org.nz](http://www.sciencelearn.org.nz))

sateliteak (eta astronautak!) energia altuko partikula kargadunen eragin arriskutsutik babestu behar baitira haiek gurutzatzean.



2. irudia. Lurraren eremu magnetikoa (zuriz) eta Van Allenen gerrikoak (koloreek partikula kargadunen dentsitatea adieraztzen dute, dentsitate maximoa gorria delarik). Irudia: Kredituak: Houston Space Center (<https://spacecenter.org/what-are-the-van-allen-radiation-belts/>)

Van Allenen gerrikoen konfinamendua, alabaina, ez da perfektua, eta abiadura altuko elektroien batzuek eremu magnetikoaren presioa gainditu, eta, poloen inguruan, atmosferara sartzea lortzen dute. Are gehiago, eguzki-ekaitzetan, hain da handia iristen diren partikula kargadunen abiadura eta dentsitatea, non magnetosfera "arrakalatu" eta zuzenean poloetara bideratzen diren. Hala, "elektroi-euri" bat imajina dezakegu, Lurreko atmosferaren goialdea partikulaz ureztatzen duena. Xirimiria (Van Allenen gerrikoetatik ihes egindako partikulak) etengabea bada ere, eguzki-ekaitzek asko handitzen dute jarioa.

### ELEKTROI-EURITIK, ARGIA:


Elektroiak (eta neurri txikiagoan, bestelako partikula kargadunak), espaziotik ur-jauzia bailiran amiltzen direnean, atmosferako gaseko (nitrogenoz eta oxigenoz osatua, batik bat) molekularekin talkak jasaten dituzte. Elektroien batek, esaterako, oxigeno atomo (O) batekin

talka egiten duenean, espaziotik zekarren energia transmituz atomoa kitzikatzen du. Oxigenoa, denbora bat pasata, normaltasunera itzuliko da, baina sobera duen energia argi moduan askatuko du. Prozesuaren laburpena, finean, honakoa da: Eguzkitik zetorren elektroien abiadura, aireko molekularekin talkak pairatu ostean, gure begiak antzeman dezakeen argi berde bilakatu dela.

Auroren irudi zabala ulertzeko atmosferaren altuera ezberdinei erreparatu beharko diegu. Denok buruan dugun kolore berde distiratsua, hain zuzen ere, elektroien oxigenoa (O) lurrazetik 95-200 km-ra (termosferan) kitzikatzen dutenean sortzen da. Atomo berberak, altuera handiagoko (eta dentsitate txikiagoko) geruzetan kitzikatzen denean (200 km-tik gora), argi berdeaz gain gorria ere igortzen du. Kolore gorriarentzat kamera digitalek gure begiek baino sentikortasun handiagoa dutenez, tonu gorrixkak argazkietan hobeto preziatu ohi dira. Oxigenoak sortutako aurora horiek ikusi ahal izatea arrunta da Ipar Polotik gertu, beti ere neguaren iluntasunak ahalbidetuta, etengabe elektroien xirimi-riak sortzen baititu.

Azkenik, Lurrak eguzki-ekaitzak pairatzen dituenean, elektroien batzuk nahikoa energia dakarte atmosferako geruza baxuagoetara iristeko. 60 km-ko altueratik behera (oraindik ere hegazkin komertzialak baino 5 bider altuago), nitrogeno gas-molekulak ( $N_2$ ) kitzikatuz argi urdina eta gorria igortzen dira, bien konbinazioak zeruan azterna moreak margotzen dituelarik.

Hala, Eguzkiak egotzitako sugar gutxi batzuek, Lurraren ezkutua gainditu ostean, gure atmosferako molekulak kitzikatuz, iluntasuna nagusi den zeruetan pintzelkada berde, gorri zein moreak marraz ditzakete.



3. irudia. Atmosferara heltzen diren partikula kargadunen eta molekula ezberdinekin talkan sortzen dituzten trantsizio eta koloreen irudikapena. Kredituak: <https://www.lwpetersen.com/science-and-nature/what-causes-the-aurora/>



4. irudia. Ezkerrean, Nazioarteko Espazio Estazioetik ateratako argazki bat (Kredituak: ESA/NASA). Bertan, argi eta garbi ikusten da argi gorria berdea baino gorago sortzen dela atmosferan. Eskuinean, NASAREN proiektu batean antzemandako aurora boreal morea, 2024ko maiatzean (azken urteotako eguzki-ekaitz indartsuenean) jazioa (Kredituak: Gunjan Sinha).



# “Politikoki eta sozialki bizi dugun krisi mundialarekin zuzenean dago lotuta horrelako formazio bat”

IBAI FRESNEDO • Hiruki Larroxa



Otsailaren 17an, martitzena, ‘Gizontasuna korapilatzen’ formazio-prozesua hasiko da Portalean, 17:30ean. Gizonei zuzendutako formakuntza eta hausnarketa prozesua izango da, konfiantzazko espazioan elkarri entzun ahal izateko eta harremanak izateko moduak berdintasunezko gizarte-eredu baterantz eraldatzeko.

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

**G**uztira zortzi saio eskainiko dituzte Hiruki Larroxako kideek gidatuta eta hilean behin egingo dira (parte-hartzaileen prestutasunaren arabera lehenengo egunean zehaztuko dira egunak). Otsailaren 16ra arte egongo da zabalik izena emateko epea eta 943 54 39 38 telefonora deituta, andretxea@eibar.eus helbidera idatzita edo Andretxearen egoitzan (Isasi kalea, 11) egin daiteke.

## **Zer ulertu behar dugu gizontasunaz ari garenean? Zer da gizontasuna?**

Azken urteotan gizontasuna eta maskulinitatea ari gara ezberdintzen, ikusten ari garelako bai historikoki bai azken hamarkadetan maskulinitateari lotuta kontzeptu berriak sortu direla (maskulinitate berriak tartean). Gizartean sekulako nahasmena dago, normalean formakuntzen izenetan maskulinitatea baitago presente, baina guretzat lazgarria izan daiteke, zeren eta norena da maskulinitatearen jabetza? Maskulinitatea hitza entzuten dugunean zuzenean gizonekin lotu beharko genuke? Emakumeek ez dute maskulinitaterik? Nortzuk dira benetan espazio horietara gonbidatuak egon beharko liratekeen subjektuak edo pertsonak? Hori da lehenik eta behin mahai gainean

jarri nahi genuen kezka. Bestetik, gizontasuna hitzak zuzenean egiten dio erreferentzia subjektuari, eta berdintasunarekin edo feminismoarekin lotutako gaiak lantzen ditugunean ezin dugu ahaztu feminismoak beti jarri duela fokua subjektu politikoan: feminismoaren borrokaren atzean beti dago emakumea eta ez feminitatea. Hau da, feminismoak ez du bere borroka feminitatean oinarritu edo emakumeak gonarekin doazen edo dena delakoa. Emakumeak ez dira bortxatuak izaten edo ez dituzte egunerokoan bizi dituzten desberdintasunak femeninoak izateagatik, baizik eta emakume izate hutsagatik. Beraz, markoaz hitz egiten hasten garenean bi kontzeptu horiek desberdintzen ditugu.

## **Gizonek zergatik hartu beharko genuke parte formakuntza-prozesu horretan?**

Ardura bat dugulako. Gizartearen erdia baino gutxiago gara kuantitatiboki, baina kualitatiboki oso beharrezkoa da gure parte-hartzea eta parte-hartze hori ez dago bakarrik lotuta genero desberdintasunekin, baizik eta gaur gaurkoz bizitzen ari garen justizia sozialaren atzerapausoekin. Gaur egun politikoki eta sozialki bizitzen ari garen krisi mundialarekin zuzenean dago lotuta horrelako formazio bat. Beharrez-



'Gizotasuna korapilatzen' formazio-prozesua emango duen Hiruki Larroxa kooperatibaren kidea da Ibai Fresnedo.

koa dugu espazio propioak sortzea eta gizotasunaz harago patriarkatua, kapitalismoa eta eguneroko hori baldintzatzen duten sistema sozial guztietan zer nolako ardura dugun ikustea, eta hausnarketa kritikoa egitea esparru ezberdinetan. Esparru indibidualen norberak bere burua aztertu, bere inguruan nola harremantzen den ikusi, gure sexualitatea, gizon izateko moduak, maskulinitatea-feminitatea... Eta gero, ikustea gizonok kolektiboki nolako harremanak sortzen ditugun, baita gure eguneroko gertuko

gizartean ere (herrian, auzoan, parte hartzen dugun egitura politiko eta sozialetan...), eta horietan nolako rola edo papera dugun.

**Edonork har dezake parte? Beharrezkoa da aurretik hausnarketa prozesu bat edo antzeko zerbait egitea?**

Parte hartzeko baldintza bakarra 18 urtetik gorakoa izatea da. Hain justu ere, hori da horrelako formazioek bilatzen dutena, aniztasuna egotea adinaren, esperientziaren eta norberak egin duen ibilbidearen aldetik. Kontziente gara gizon batzuek seguraski

aurretik lanketa bat egin edo hausnarketa-bide bat irekia dutela, baina beste batzuek akaso ez. Prozesu izaera edukitzeak aukera ematen du hasieratik talde izaera lantzeko eta bakoitzaren abiapuntua zein den eta, horren arabera, prozesua eraikitzen joateko. Beraz, edozein etorri daiteke.

### **Nolako saioak izango dira?**

Metodologia praktikoa eta teorikoa uztartzen saiatzen gara. Teorikoa aipatzen dudanean ez nabil klase magistralez ari, baizik eta marko minimoaz. Marko horiek kontzeptualak izan ohi dira eta lehen bi saioetan marko itxi bat eramaten dugu, nahiko kritikoa eta lehen aipatutako gako batzuetan oinarritua. Etortzen diren gizon parte-hartzaileen beharren arabera kontzeptu batzuk argitzen saiatzen gara. Beti gustatzen zaigu foro formatua aplikatzea eta bakoitzak bere egunerokoan dituen beldurrak eta zalantzak ekartzea eta hortik eraikitzea. Alde praktikoari begira, jolasean, eztabaidan eta dinamika parte-hartzaileetan sartzen gara, eta gure papera espazio hori dinamizatzea eta galderak egitea izaten da. Parte hartzen duten gizonak beti dute prestutasuna horrelako espazio irekietan parte hartzeko, ez baitaude ohituta.

### **Nolako esperientziak eduki dituzue horrelako formakuntza-prozesuetan?**

Nahiko talde anitzak edota homogeneoak izatea hainbat ezaugarri dagokienez, eta gizon izatea izaten da ezaugarri komuna. Horrek, maskulinitatearekin lotuz, badauzka betebeharrak, etiketa edo presio sozial batzuk. Ia herri guztietan, hasieran, gizonak izaera oso arrazionaletik etortzen dira. Ulertzen dute klase magistral batzuetara datozela, koadernoarekin eta boligrafoarekin, apunteak hartzen, eta ematen du partekatu behar dutela gizon aliatuaren izate horretatik inguruko emakumeengatik zer ikasi duten eta eraldaketa batean daudela erakustea. Prozesuak aurrera egin ahala askatzen joaten dira, euren zaugarritasunak besteen aurrean adierazten dituzte, baita euren beldurrak ere, eta eurak diren hori besteen aurrean erakusten dute. Orduan, erlaxatu egiten dira eta ar



**“Parte hartzen duten gizonak beti dute prestutasuna horrelako espazio irekietan parte hartzeko, ez baitaude ohituta”**

eta giro anitzagoa sortzen da. Norbanakotasunetik kolektibotasunera igarotzean badaude aurrerago loratzen diren elementuak eta hori oso interesgarria izaten da.

### **Prozesua amaitzerakoan zein izan ohi da emaitza?**

Horrelako prozesuetan inbutuaren logika aplikatzen dugu. Hau da, handitik txikira edo orokorretik zehatzera. Beraz, prozesuak konpromisoekin amaitzen ditugu, gero eraldaketa txiki bat gertatzea nahi dugulako, batez ere euren egunerokoan eta inguruan (auzoetan, familietan, zirkulu sozialetan...). Prozesuan zehar hausnarketa pila bat egiten da, identifikaziorako tresnak ematen saiatzen gara... Eta ez bakarrik kritika suntsitzaile edo negatiboetatik, baizik eta indargune batzuk ere identifikatzen. Izan ere, prozesu kritiko honek eurei zerbait ematea eta fruitu horiek egunerokoan aplikatzea nahi dugu.





## Emaizta onak Ipurua klubeko gimnastentzat Gipuzkoako Txapelketan

**E.B.** Gimnasia erritmikoko Gipuzkoako Txapelketaren jardunaldia jokatu zen asteburuan Donostian, eta Ipurua klubeko 60 gimnasta inguruk parte hartu zuten bertan, banakako zein taldekako probetan.

Benjamin A mailan, Lucia Soto, Mikel Azpiri, Laia Lorenzo eta Al-datze taldea aritu ziren lehian, esperientzia baliotsua pilatuz.

Alebin A kategorian, Uxue Garcia bigarren izan zen; alebin C taldekako proban Anaitasuna taldea 8. izan zen, Iturburu 15., San Andres 18. eta La Salle 25.a.

Infantil mailan ere emaitza aipagarriak izan ziren. Infantil C taldekako proban, Ipurua E taldea bosgarren postuan sailkatu zen. Infantil B taldekakoan, Ipurua M taldeak hirugarren postua lortu zuen, podiumean sartuta; Ipurua zazpigarren izan zen eta Ipurua P, berriz, hemeretzigarren. Banakako Infantil B kategorian, Ilaia Díaz hirugarren izan zen, Elene Muniozguren bosgarren, Miren de Andres zazpigarren, Maialen Cid bederatzigarren, Oier Gabilondo hamabigarren eta Aiuria Luzar hamalaugarren.

## Malape Tabernaren jipoia Bar Maremi (8-0)

**E.B.** Liga amaitu du Malape Taberna txapeldunak, eta nola gainera. Bar Marem bigarren sailkatuaren aurka jokatu zuen asteburuan eta liga zergatik irabazi duen erakutsi zion 8-0 irabazita.

Hirugarren eta laugarren sailkatuek ere elkarren aurka jokatu zuten, eta kasu horretan atzetik zihoan taldea izan zen garaile. Bergara Pneumatikoak taldeak 3-8 irabazi zion Xania Tabernari eta aurea hartu dio sailkapenean.

Aratosteak direla eta, asteburu honetan ez da jardunaldirik egongo eta hurrengo astean jokatu da Ligako azken jardunaldia, Kopa txapelketa hasi baino lehen.

### SAILKAPENA

1. Malape Taberna, 42 puntu
2. Bar Marem, 29 puntu
3. Bergara Pneumatikoak, 29 puntu
4. Xania Taberna, 27 puntu
5. Kalaka Buenos Aires, 24 puntu
6. Adahi Etxegi, 22 puntu
7. Garajes Garcia, 19 puntu
8. Limpiezas Rueda, 6 puntu
9. Baserri, 0 puntu

## Mendyrentzat brontzea Belodromoan

**E.B.** Zapatuan, pista estaliko 16 urtez azpiko Gipuzkoako Atletismo Txapelketa jokatu zen Donostiako Belodromoan. Eibarko Klub Deportiboko atletismo taldeko zenbait atleta aritu ziren bertan eta garaikurrekin itzuli ziren, Sonia Mendyk brontzezko domina irabazi baitzuen pisu jaurtiketan (8,38 metro).

Eibartarrek lortu zuten domina bakarra izan zen, baina emaitza txukunak lortu zituzten beste proba

batzuetan. Adibidez, 60 m-ko proban, Naia Astigarraga bigarren izan zen bere seriean (8,68 segundo) eta Gipuzkoako 12. sailkatu zen bere markarik onena lortuz; Malen Anderrez 16. izan zen (8,79 s) eta Sonia Mendyk 18. amaitu zuen (8,81 s).

300 metroko proban, Malen Anderrezek (47.63 s) bere serieko 4. postua lortu zuen, txapelketan 10. sailkatuz eta bere markarik onena lortuz. Eta luzera jauzian, Naia Astigarraga 11. geratu zen (4,24 m).





## Lehen garaipena maila goreneko Deporreko xake taldearentzat

**E.B.** Gipuzkoako Taldekako Xake Txapelketaren 5. jardunaldian iritsi da maila gorenean jokatzeko duen Deporreko xake taldearen lehen garaipena. Eibar A-k Astigarraga A-ren aurka jokatu zuen eta 2,5-1,5 irabazi zion. Hirugarren mailako taldeei dagokienez, Eibar B-k maila bikainean jarraitzen du eta 4-0 irabazi zion Goierri B-ri; eta Eibar C-k beste porrot bat jasan zuen, kasu honetan 0-4 Zarautz B-ren kontra.



## Artesanos Juantxo taldeak denboraldiko hirugarren garaipena lortu du

**E.B.** Ez dihardu izaten denboraldi erreza Artesanos Juantxo taldearentzat (gizonezkoen Gipuzkoako 1. Mailan jokatzeko duen Eibar Saskibaloia taldea), baina asteburuan garaipena lortzeko aukera ona zuen Aldapeta Maria Ikastetxea azkenaren aurka eta ez zuen hutsik egin (51-65). Horrela, denboraldiko hirugarren garaipena lortu du Artesanos Juantxok eta orain 10 puntura berdinduta dago Take Orbela Taberna eta Elorri-Aldapa/ZTB Garbiketako taldeekin.



## Euskal Ligako Urbatek gertuago du bigarren postua

**E.B.** Asteburuan arerio zuzena duen Askartza A-ri egin zion bisita eta 10-12 irabazi zion, euren artean sailkapenean dagoen aldea handituz. Garaipen horrekin, Urbat gehiago gerturatu da bigarren postuan dagoen Leioa WP B-rengana (3 puntura dago).

Gizonezkoen lehen taldeak Tenerife Echeyde B lidderraren aurka jokatu zuen asteburuan eta, aurpegia eman arren, 12-11 galdu zuen. Taldeak berdinduta iritsi ziren azken laurdenera, baina eibartarrek amore eman behar izan zuten azkenean. Bihar, 20:15ean, Tres Cantos taldearen aurka jokatuko dute liga erregularreko azken partidua.



## Liderrei egin beharko diete aurre SD Eibar-en talde nagusiek

**E.B.** Lau partidua jarraian galdu ondoren, F Ligako SD Eibar-ek ez du aurkari erraza izango bihar, FC Bartzelona ahaltsuari egingo baitio bisita, 18:30ean.

Hypermotion Ligako SD Eibar-ek etxean jokatuko du, etzi, 16:15ean, eta Lehen Mailara begira dagoen Santanderreko Racing izango du arerio.



## Aurtengo Itzulia ez da Eibarren amaituko, baina etapa erregina gurean jokatu da

**E.B.** 2026ko Itzuliaren ibilbidea eguaztenean aurkeztu zuten udal-letxean. Lastarketa apirilaren 6an hasi eta 11n amaituko da, eta txirrindulariek 810 kilometro egingo dituzte guztira sei etapatan banatuta, 16.154 metroko desnibel metatua gainditu beharko dute eta 29 mendi igo (lau lehen mailakoak, zazpi bigarrenekoak eta 18 hirugarrenekoak).

### Sei etapa

Itzulia 13,9 km-ko erlojupekoarekin hasiko da apirilaren 6an, astelehena, Bilbon hasi eta amaituta (Etxeberria parkean), 2021eko ibilbide berarekin. "Pandemia zen eta ezin izan zen publikorik egon. Beraz, festa bat izatea nahi dugu", antolatzaileen berbetan.

Bigarren etapa (apirilak 7) Iruñea eta Mendukilo kobazuloaren artean jokatu da (164,1 km). Bidean Aralar larko San Miguel igo beharko dute Uharte-Arakiletik doan hormigoizko pistatik.

Hirugarrena (apirilak 8) Basaurin hasi eta amaituko da, Basozelai au-

zoan (% 16 eta % 19 arteko maldak igoz), Josean Fernandez 'Matxin' zuzendariaren jaiotza-auzoan.

Laugarrena (apirilak 9) Galda-kaon hasi eta amaituko da. Igor Anton txirrindulari ohiak diseinatu du etapa hau eta, antolatzaileen berbetan, "Bizkaiko ohiko etapa izango da, igoera eta jaitsiera askorekin".

Bosgarren etapa (apirilak 10) Eibarkoa izango da. "Aurtengo Itzuliako etapa erregina izango da", antolatzaileen hitzetan. 3.841 metroko desnibel metatuarekin, birritan pasako da Eibartik (Orbetik Krabelinera igoko dira lehenik eta gero Arrateko bidetik Ixua), hirugarrenean Toribio Etxebarrian amaitzeko.

Azken etapa (apirilak 11) Antzuola eta Bergara artean jokatu da. Eibarko etaparen ondoren, talde batzuek euren postuei eusteko egingo dute lan eta beste batzuek sailkapenari buelta eman nahiko diote. Gauzak horrela, etapa gogorra izango dute aurretik, 3.000 m-tik gorako desnibel metatuarekin.

## ASTEBURUKO AGENDA

### FUTBOLA

#### Emakumezkoen 1. Maila

FC Bartzelona - EIBAR (bihar, 18:30)

#### Gizonezkoen 2. Maila

EIBAR - Racing Santander (etzi, 16:15)

#### Gizonezkoen 2. Maila RFEF

Aviles - EIBAR B (etzi, 16:15)

#### Emakumezkoen 2. Maila RFEF

EIBAR B - Burgos (etzi, 12:00)

#### Gizonezkoen 3. Maila RFEF

Durango - EIBAR C (bihar, 12:00)

#### Erregionaleko Ohorezko Maila (gi)

URKI - Beragara (gaur, 20:00)

#### Erregionaleko Gorengo Maila (gi)

EIBARTARRAK - Lagun Onak (bihar, 12:00)

#### Jubenilen Nazional Liga (gi)

EIBAR B - Antiguoko B (bihar, 12:00)

#### Jubenilen Euskal Liga (gi)

Beasain - URKI (bihar, 11:30)

### ESKUBALOA

#### Zilarrezko Maila (em)

Malkaitz - E. ESKUBALOA (etzi, 13:00)

#### 1. Maila Nazionala (gi)

Trapagaran - E. ESKUBALOA (gaur, 20:15)

#### Seniorren Euskadiko Liga (gi)

E. ESKUBALOA B - Muskiz (bihar, 12:00)

### SASKIBALOA

#### Gipuzkoako 2. Maila (em)

Luberri - EIBAR SASKI (gaur, 20:00)

### WATERPOLOA

#### 2. Maila (gi)

URBAT - Tres Cantos (bihar, 20:15)

### FRRUGBIA

#### Ohorezko B Maila (em)

Santboiana - EIBAR R.T. (etzi, 11:30)

Kirol albiste gehiagore webgunean







# Munduko mendikateek Eibarren egingo dute bat



Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

Mendiz inguratuta bizi gara Eibarren eta ezinbestean jarri gara beti mendira begira. Bertan ibiltzeko ohitura oso errotuta dago gure artean eta, ingurukoak nahikoa ez eta beste latitude batzuetakoak ere zapaldu ditugu. Abentura gose horrek beste abenturazale batzuk ezagutzera eraman gaitu eta datozen asteotan euren istorioak ezagutzeko aukera izango dugu Eibarko Klub Deportiboak antolatzen dituen Mendi Jardunaldiaren.

Bi sarrera bikoitzen  
ZOKKETA



**B**ueltan dira Eibarko Mendi Jardunaldiak. Otsailaren 17tik martxoaren 29ra arte mendia izango da protagonista eta hainbat ekintza prestatu dituzte horretarako. Otsailean zehar mendia ardatz dituzten ikus-entzunezko lanak izango dira nagusi eta, martxoan, mendi topaketen, hitzaldien eta irteeren txanda iritsiko da.

Egitarauari hasiera emateko, Mendi Tour zikloa izango dugu, Mendifilm jaialdi arrakastatsuen ikus-entzunezko onenak jasoz. Bi saio egingo dira, hilaren 17an eta 19an, 18:30ean, Coliseo antzokian, eta sarreraren prezioa 5 eurokoa izango da. Coliseoko leihatilan edo Kutxabanken erosi daitezke, baina doan lortu nahi izanez gero, orri honetako QR-a eskaneatu eta egun bakoitzerako sarrera bikoitzen zozketan sartu zaitezke.

Lehenengo egunean, 17an, 'Izarren zaunka', 'Into altai' eta 'Best day ever' lanak emango dituzte. 'Izarren zaunka' dokumentalaren nazioarteko estreinaldia izango da eta Txindokin irekitako bide berri baten aitzakian, bi lagun barne-bidaia kontatzen da, min kronikoak eta antsietatea parez jarrita. 'Into altai'-k Mongoliako Tavan Bogd mendigunera eramango gaitu, eskian eta snowboardean, sakratuak eta urrun diren tontorren bila. Eta 'Best day ever'-ek mendiko txirringarritza egokitua jarriko du erdিয়ে, komunitatearen indarra eta ahalduntzea ardatz.

Bigarren egunean, hasteko, 'Cantos y flores' lana emango dute, non Karina Carsoliok hildako anaiarekin partekatzen zuen ametsa nola burutzen duen kontatzen duen: Boliviako Huayna Potosi, Illimani eta Sajama mendi ikonikoak ahalik eta azkarren igotzea eta jaistea. 'The road we never rode' lanean agure batek Zeelanda Berrian zehar bizikletaz nola bidaiatzen duen amestuko du, oroimenaren eta damuen inguruko gogoeta poetikoan. Eta

'K2 Mon Amour'-ek Liv Sansoz eta Zer Rochek 2024an egin zuten balentria erakutsiko du: K2 mendira igotzea eta gailurretik parapentean elkarrekin hegan egitea.

### Abenturazaleekin solasaldiak

Zinematik harago, martxoak mendiko ahots propioak ekarriko ditu. Martxoaren 3an, 19:00etan, Portalean, Mikel Zabalezak 'Himalaia estilo alpinoan' ikus-entzunezkoa eta solasaldia eskainiko du. Iruñeko alpinista entzutetsuak Himalaiako sei, zazpi eta zortzimilakoetan estilo alpinoan bizitako esperientziak partekatuko ditu.

Martxoaren 10ean, 19:00etan, hau ere doan, Mattin Iñiguezek Red Bull X-Alps lasterketan bizitakoa kontatuko du Portalean. Hamabi egunez Alpeetan barrena, oinez eta hegan, 60 kilometro eta 3.000 metroko desnibel positiboa egunero. Mendiko lasterketa eta parapentea uztartzen dituen muturreko erronka da.

### Botak jantzi

Mendiaren inguruko jardunaldiak izanik, irteerak ezin dira falta. Lehenengoa Negutraila izango da, martxoaren 1ean, eta gonbidatu berezia izango dugu ibilbidea egiteko: Oihana Azkorbebeitia mendikorrikalaria. Irteera 08:30ean izango da, Deporrek ataritik, eta alde zaurerik izena ematea beharrezkoa izango da [www.deporeibar.com](http://www.deporeibar.com) helbidean. Bi ibilbide egiteko aukera emango dute, eta Kalamua Korrikalari Taldekoek Azkorbebeitiari bidean zehar galderak egiteko aukera luzatu dute.

Martxoaren 15ean, Emakume Langileen Nazioarteko Egunaren harira, Emakumeen Ibilaldia egingo da. Deporretik irtengo dira, 10:00etan, Eibar inguruan ibiliko dira, eta Depor tabernan mokadutxo hartzen amaituko dute. "Hiru orduko buelta lasaia izango da", antolatzaileek diotenez, eta jai giroan egiteko asmoa dute, "elkarrekin sortzen dugun energia sentitzeko", natura lagun izanda urrutiago iristeko aliantzak sortuz. Parte-hartzea librea izango da, baina aurretik izena ematea eskatzen dute.

Mendi Jardunaldien egitarauarekin amaitzeko, martxoaren 29an, txoriak ezagutzeko eta ikusteko irteera egingo da Asier Sarasua biologoak gidatuta. 09:00etan irtengo dira Urkizuko iturritik, eta handik Santa Kurutz arteko bidean hegaztien kantuak bereizten irakatsiko du. Prismatikoak eramatea ezinbestekoa izango da.

## Ikus-entzunezkoen proiektzioak, solasaldiak eta mendi-irteerak antolatu dituzte Mendi Jardunaldien harira



K2 mendiaren gailurretik parapentean hegan egin zuten Liv Sansoz eta Zeb Rocheren dokumentala egongo da ikusgai.

# “Zenbateraino da benetakoa gure elkartasuna? Horixe da *Kandida*-ren galdera nagusia”

PATXO TELLERIA • Egilea eta zuzendaria



Ikuslea harrapatuta lagatzen duen istorio horietako batekin etorriko da Tartean Teatroa aurtengo Antzerki Jardunaldietara. Patxo Telleriak idatzitako antzezlan da *Kandida*. Ikuskizuna otsailaren 18an, eguaztena, izango da Coliseo antzokian. Telleriak hainbat gai sakon mahai gainean jartzen ditu: arrakasta lortzeko edozer egitearen mugak, bizitza baten lapurreta metaforikoa edota gure gizartean gero eta ohikoagoak diren etxegabetzeak.

Testua **ANA AIZPURUA RUBIO**

## Otsailaren 18an etorriko zarete Eibarrera *Kandida*-rekin. Pozik Eibarrera etortzearekin?

Bai, bai, gogoz. Eibar antzerkiarekin oso lotuta egon da aspaldidanik, eta gu ere beti ilusio handiarekin etorri izan gara. Guretzat plaza berezia eta beroa da. ***Kandida* ere bero-bero dago, aurreko astean labetik atera berri.**

Arriaga antzokia bi egunez bete genuen, eta euskarazko lan baterako hori oso pozgarria da. Erritmoa hartu diogu dagoeneko, eta estreinaldia oso naturala izan zen.

## Nondik sortu zen *Kandida* idaztearen ideia?

Ideiak nondik sortzen diren azaltzea zaila da beti, baina hasieratik neukan gogoia fikzioaren eta errealtatearen arteko kontraesanak erakusteko. Artearen eta bizitzaren arteko talkak modu gordinetan agertzeko. Fabula honetan bi mundu kontrajarri jarri ditut: fikzioa eta errealtatea. Batetik, Klara dago, neska gazte intelektual bat, idazle izan nahi duena. Ametsa betetzen du nobela bat idatzita. Nobela horretan, desahuzio baten ondorioz etxerik gabe geratutako emakume baten istorioa kontatzen du: *Kandida* fikziozko pertsonaia da, baina benetako pertsona batean oinarrituta dago, Manuela izenekoan. Nobelan, Klarak



Patxo Telleriak idatzitako eta zuzendutako azken lana da *Kandida*.





Miren Gaztañaga, Mikel Martinez eta Nerea Mazo egongo dira Coliseoko taula gainean.

irudikatzen du aurretik ezagutzen duen Manuelarekin topo egiten duela berriro, etxera eramaten duela, eta bien artean elkartasun eta borroka istorio bat sortzen dela: demanda jartzen dute, etxea berreskuratzeko borrokatzen dute... Baina errealitatean, Klarak liburua aurkeztzen duen gau berean, benetako Manuela agertzen da bere etxean. Irratian entzun du nobelaren berri, eta konturatu da bere bizitza kontatzen ari direla. Eta orduan eskatzen dio nobelan agertzen dena benetan egiteko: etxean hartzeko.

#### **Eta hortik hasten da gatazka...**

Klarak etxean hartzen du, baina interesek eta beldurrek baldintzatuta: argitaletxearen presioak, autifikzioaren auziak... Azkenean, kontraesanak agerian geratzen dira. Antzezlanak bi ibilbide erakusten ditu: Manuelarena, bai nobelan bai errealitatean; eta Klararena (bere mundua nola erortzen den ikusten dugu). Manuelaren egoera eta etxegabetuen arazoa testuingurua da eta horretaz hitz egiten da, baina gehienbat Klararen ibilbideaz hitz egin nahi dut lan honetan. Azkenean, galdera nagusia da: zenbateraino dira benetakoak gure elkartasuna, gure konpromisoa, gure kezka sozialak? Eta zenbateraino dira gure buruarekin ondo sentitzeko apaingarri bat?

**“Askotan asmo zintzoz hitz egiten dugu, baina gero egunerokoan zer egiten dugun beste kontu bat da”**

#### **Bizitzaren eta pertsonen kontraesanez ari zara.**

Hori da. Askotan asmo zintzoz hitz egiten dugu, baina gero egunerokoan zer egiten dugun beste kontu bat da. Eta hori ez zaio artista edo idazle bati bakarrik gertatzen; edozeini gertatzen zaio.

#### **Zer aurkituko du ikusleak taula gainean?**

Hiru aktore zoragarri: Miren Gaztañaga eta Mikel Martinez aktore aski ezagunak eta Nerea Mazo aktore emergentea Klararen paperean. Tonua dramatikoa da, baina umorea ere badago; bizitza bera bezala, batzuetan barregarria eta beste batzuetan gordina. Istorioa gogorra da, baina badu goxotasun eta hun-kigarritasun puntu bat. Pentsarazteko egina dago.



## Etxean bezain eroso aritu zen Imanol Arias Coliseoko saioan

**S.H.** Eibarko 49. Antzerki Jardunaldiei hasiera ofiziala eman zitzairen astelehenean, otsailaren 9an, Coliseo antzokian egindako solasaldi berezi batekin. Bertan, Imanol Arias eta Maria Barranco aktore ezagunek antzerkiaren ibilbideaz, lanbidearen erronkez eta taulagaineke bizipenez jardun zuten, Irene Hernando aktore eibartarrak gidatutako saioan. Publikoa partaide eginez, giro hurbilean, jardunaldien balioa eta kulturaren garrantzia nabarmendu zituzten (Argazkia: Eibarko Udala).



## Astelehenetik zapatura ikusi daitezke Irigoien argazkiak

**S.H.** Aurreko asteaz geroztik *Eibar, laino guztien gainetik edo... azpitik*, Jose Luis Irigoien argazkilaria erakusketa ikusi daiteke Topalekun. Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldeko kideak Eibarren ateratako edo Eibarri buruzko 38 argazki jarri ditu ikusgai, den-denak zuri-beltzean, eta gai beraren (lainoak) ingurukoak. Otsailaren 21era (zapatua) arte joan daiteke ikustera, astelehenetik zapatura, 19:00etatik 21:00etara (domeketan itxita).



## Andrea Covadonga “Me cago en el porno” komedian

**S.H.** Andrea Covadonga eibartarra Madrilen dago, Teatros Luchana aretoan estreinatu berri den *Me cago en el porno* izenburukoan lan egiten. Zinema pornografikoaren industriako azpijokoak satirizatzen dituen komedia beltz bat da, eta egileek (Ivan Calvok eta Quique Nizak) aktore baten bitzta zein krudela eta bitxia izan daitekeen erakusteko asmoz sortu dute. Eibartarrarekin batera, Samuel Lopezek eta Lorena Antequerak osatzen dute aktore-zerrenda.



## Miren Narbaiza Nacho Vegasekin batera arituko da

**S.H.** Miren Narbaiza eibartarra Nacho Vegas (Xixon. 1974) musiko ezagunarekin batera arituko da, “*Vidas semipreciosas*” (Oso Politak. Last Tour) lan berria eza-gutzero emateko urtarilla amaieran hasi duen biran. Vegasek bi gitarra-jole euskaldun, Narbaiza (ahotsarekin ere lagunduko dio) eta Joseba Irazoki aukeratu ditu, Estatuan eta Latinoamerikan emango dituen kontzertuetan berarekin batera aritzeko. Maiatzaren 15ean Bilbon emango du kontzertua Vegasek, hurrengo egunean (16an) Gasteizen, eta maiatzaren 28an Iruñean joko du.



## Aldaketak Coliseoko zinema-emanaldietan, ezohiko emankizunen eraginez

**S.H.** Coliseo antzokian asteburuoro egiten diren zinema emanaldietan asteburu honetan aldaketak egongo direla jakinarazi dute antzokiko arduradunek, ohiko programaziotik kanpora hainbat saio berezi eskainiko dituzte eta. Horrela, domeka arratsaldean, 20:00etan, ez da ohiko proiektziorik egingo antzokian, areto horretan Coliseo Klazinema, Udalak antolatutako zine klasikoko zikloaren lehen emanaldia egingo delako: 19:30etan hasiko da Stanley Kubrickek zuzendutako *La naranja mecanica* (1971) filmaren proiektzioa.

### “Jonas Kaufmann. The sound of movies” opera

Horrez gain, gaur (barixakua, otsailak 13) *Jonas Kaufmann. The sound of movies* operaren proiektzioa eskainiko dute, 19:30ean. Czech National Symphony Orchestra-k 2024an Pragako Smetana Aretoan eskainitako ikuskizuna ikusi ahalko da, Version Digital Diferidos-en eskutik. Errezitaldiak zinemaren magiari omenaldi paregabea eskaintzen dio, Jonas Kaufmann-en ahotsaren bidez. Jochen Rieder-en zuzendaritzapean, tenore alemaniarrek ibilbide hunkigarria proposatzen du Hollywooden zein Europako zinemaren soinu-banda ikonikoenetako batzuetan barrena. Sarrerak 9 euro balio du (5,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin)

### “Ochiren legenda” Zinema Euskaraz-en eskutik

Eta Zineuskadiren Zinema Euskaraz programaren eskutik, Isaiah Saxon zuzendariaren *Ochiren legenda* (12 urtetik beherakoentzat ez gomendatua) euskaraz ikusteko aukera izango da, zapatuan (otsailak 14) eta domekan (otsailak 15), 17:00etan. Gainera sarrerak 1,5 euroko deskontua izango du, sustapeneko filma delako.



## Korrika Eguna iragarri du Eibarko AEK euskaltegiak

**S.H.** 24. Korrika ate joka dela, Eibarko AEK-k Korrika Eguna iragarri du, eta hori antolatzen dihardu, herriko hainbat eragilerekin elkarlanean. Aspaldiko partez, zapatu iluntzean zeharkatuko du Korrikak eskualdea eta, hori dela eta, harrera berezia egin nahi diote. Korrika Eguna martxoaren 28an, zapatuan ospatuko da Eibarren, eta egun osoko jarduerak izango dira herriko hainbat gunetan. Jakinarazi dutenez, egitarauan trikipoteoa, auzoetako ekitaldiak, herri bazkaria, txosna gunea, bazkaloste girotua, elektrotxaranga eta kontzertuak jasoko dira, besteak beste. Herri bazkarirako tiketen salmentaren berri laster emango dute. Eguneke unerik esanguratsuen 21:00ak aldera izango da, Korrika Eibarren barrena igaroko denean. Herritarrei egitarauan eta Korrikan parte hartzeko eta euskararen aldeko mezua kaleetara ateratzeko deia egin diete antolatzaileek.

## Bideo-forum feministaren saioa



**S.H.** Martitzenean (otsailak 17) *Las constituyentes* (2011), Oliva Acostak zuzendutako dokumentalaren inguruko bideo-forum saioa egingo da Andretxean,

17:00etan. Pagatxa emakumeen elkarteak antolatu du saioa, Emakumeen Istorioak zikloaren baitan, eta dinamizatzailea Patricia Perex izango da. Solasaldiaren aurretik ikusi ahalko den lan honek diktadura frankistaren ondoren, 1977ko legegintzaldi konstituziogilean protagonista izan ziren 27 emakume diputatu eta senatarien esperientzia pertsonalak biltzen ditu. Sarrera libre da.



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

|   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
|   | 6 |   |   |   |   |   | 5 |
|   |   | 3 |   |   |   | 8 | 2 |
| 9 |   |   | 8 | 5 |   |   | 3 |
|   |   | 4 | 9 |   | 7 |   |   |
| 6 |   |   |   |   |   |   | 7 |
|   |   |   | 6 |   | 1 | 9 |   |
| 2 |   |   |   | 1 | 6 |   | 4 |
|   | 7 | 9 |   |   |   | 1 |   |
| 1 |   |   |   |   |   | 8 |   |

SUDOKUA

|   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2 | 8 | 6 | 7 | 4 | 9 | 5 | 1 |
| 9 | 5 | 1 | 8 | 3 | 2 | 7 | 4 |
| 7 | 6 | 7 | 9 | 1 | 5 | 8 | 3 |
| 8 | 3 | 6 | 1 | 4 | 9 | 5 | 7 |
| 7 | 4 | 2 | 8 | 3 | 1 | 6 | 9 |
| 1 | 9 | 5 | 2 | 7 | 6 | 4 | 8 |
| 3 | 1 | 9 | 2 | 5 | 8 | 7 | 6 |
| 6 | 2 | 7 | 8 | 9 | 3 | 1 | 5 |
| 5 | 7 | 4 | 3 | 6 | 1 | 2 | 8 |

|   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2 | 5 | 3 | 7 | 8 | 9 | 1 | 6 |
| 7 | 1 | 4 | 9 | 5 | 6 | 2 | 8 |
| 8 | 6 | 9 | 3 | 1 | 2 | 7 | 5 |
| 3 | 8 | 4 | 6 | 7 | 1 | 5 | 9 |
| 6 | 2 | 1 | 5 | 9 | 8 | 4 | 7 |
| 9 | 7 | 8 | 2 | 4 | 6 | 3 | 1 |
| 1 | 3 | 7 | 6 | 5 | 2 | 8 | 9 |
| 5 | 6 | 1 | 7 | 8 | 9 | 4 | 3 |
| 4 | 2 | 8 | 3 | 1 | 7 | 9 | 5 |

ZERTXOBAIT ZAILAGOA


|   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5 |   | 7 |   | 3 | 1 |   | 8 |
|   |   |   |   | 8 |   | 9 | 6 |
|   |   |   |   | 9 |   |   |   |
|   |   |   |   |   |   | 5 | 6 |
| 4 | 7 |   |   |   |   |   | 2 |
| 2 |   | 5 |   |   |   |   |   |
|   |   |   |   | 1 |   |   |   |
| 8 | 2 | 3 |   | 5 |   |   |   |
|   | 1 |   | 8 | 4 |   | 3 | 2 |

ZENBAKI-ZOPA

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2 | 1 | 8 | 7 | 0 | 2 | 2 | 8 | 2 | 8 | 3 | 8 | 7 | 7 | 0 | 2 | 5 | 7 | 9 | 7 |
| 3 | 7 | 8 | 6 | 4 | 6 | 2 | 0 | 0 | 5 | 4 | 6 | 7 | 5 | 2 | 3 | 6 | 5 | 1 | 1 |
| 0 | 4 | 5 | 3 | 9 | 8 | 8 | 7 | 8 | 6 | 6 | 5 | 2 | 0 | 6 | 9 | 8 | 5 | 9 | 9 |
| 5 | 2 | 5 | 3 | 9 | 8 | 6 | 9 | 9 | 9 | 8 | 8 | 0 | 5 | 9 | 1 | 8 | 3 | 7 | 1 |
| 2 | 7 | 1 | 5 | 3 | 3 | 6 | 8 | 0 | 1 | 1 | 1 | 5 | 1 | 0 | 5 | 0 | 9 | 8 | 3 |
| 2 | 3 | 5 | 4 | 9 | 4 | 4 | 1 | 5 | 1 | 8 | 4 | 0 | 2 | 3 | 0 | 3 | 2 | 7 | 1 |
| 6 | 5 | 8 | 9 | 3 | 6 | 1 | 4 | 7 | 6 | 4 | 2 | 6 | 4 | 4 | 6 | 4 | 4 | 8 | 3 |
| 2 | 3 | 3 | 8 | 8 | 2 | 5 | 5 | 5 | 8 | 8 | 5 | 5 | 7 | 6 | 8 | 4 | 0 | 8 | 1 |
| 3 | 0 | 8 | 9 | 1 | 2 | 5 | 0 | 8 | 0 | 6 | 3 | 1 | 8 | 2 | 8 | 5 | 8 | 1 | 1 |
| 0 | 5 | 3 | 9 | 8 | 3 | 9 | 1 | 9 | 9 | 4 | 1 | 1 | 1 | 8 | 8 | 0 | 4 | 4 | 8 |
| 5 | 3 | 5 | 6 | 0 | 5 | 4 | 2 | 1 | 1 | 2 | 1 | 8 | 2 | 4 | 8 | 2 | 6 | 3 | 8 |
| 3 | 5 | 5 | 0 | 3 | 2 | 2 | 7 | 8 | 1 | 0 | 1 | 1 | 7 | 7 | 5 | 3 | 3 | 2 | 0 |
| 6 | 3 | 7 | 8 | 4 | 7 | 7 | 4 | 4 | 0 | 6 | 2 | 1 | 4 | 8 | 2 | 4 | 6 | 6 | 2 |
| 1 | 4 | 1 | 3 | 2 | 5 | 5 | 2 | 5 | 2 | 8 | 1 | 2 | 4 | 7 | 4 | 4 | 5 | 0 | 8 |
| 6 | 0 | 1 | 1 | 2 | 1 | 9 | 6 | 4 | 0 | 4 | 6 | 9 | 0 | 1 | 4 | 0 | 3 | 2 | 9 |
| 7 | 9 | 1 | 6 | 0 | 6 | 1 | 1 | 4 | 9 | 5 | 2 | 4 | 5 | 2 | 8 | 4 | 0 | 3 | 4 |
| 5 | 8 | 8 | 9 | 1 | 1 | 4 | 3 | 9 | 6 | 1 | 7 | 5 | 7 | 8 | 5 | 7 | 0 | 4 | 0 |
| 2 | 5 | 7 | 2 | 1 | 3 | 9 | 6 | 4 | 7 | 2 | 8 | 1 | 8 | 2 | 6 | 9 | 9 | 4 | 1 |
| 0 | 8 | 4 | 5 | 7 | 8 | 0 | 3 | 7 | 4 | 6 | 0 | 3 | 0 | 2 | 9 | 5 | 8 | 4 | 4 |
| 2 | 2 | 7 | 1 | 2 | 2 | 8 | 7 | 8 | 0 | 5 | 8 | 2 | 3 | 0 | 0 | 5 | 3 | 3 | 9 |

74404  
6061  
439617  
5573  
278101

88557  
1978  
3924  
8551  
63354



# Otsailak 13 - Otsailak 19

## BARIXAKUA 13

### OPERA

**19:30** "Jonas Kaufmann. The sound of movies" operaren proiektzioa. Czech National Symphony Orchestra-k 2024an Pragako Smetana Aretoan eskainitako ikuskitzuna. 9 euro (5,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

### BARIXAKU ERREGULARRA

**20:00** Kaldereroen kalejira, Urkizutik Untzagara. **20:30** Aratosteetako pregoia. Sofia Machin abeslariaren eskutik, Klub Deportiboaren lehoan. ...eta kitto! Euskara Elkartek eta Kezka Dantza Taldeak antolatuta.

## ZAPATUA 14

### NAZIO BATZARRA

**09:30/11:30** Euskal Herriko Torturatuen Sarearen Nazio Batzarra. **12:00/12:30** Prentsaurrekoa. Eibarko Ingeniaritza Eskola.

### ARATOSTE ZAPATUA

**12:30** Rock kalean, Eibarko kaleetatik. **12:30** Aratostee-tako kuadrillen kalejira, Ustekabe eta UK03 fanfarreekin. **12:30/14:30** Photocall-a, Untzaga plazan. **16:30/19:30** Puzgarriak, Errebal Plazan. **19:00/21:30** Umeentzako berbena, Bada Giro taldearekin, Untzagan. **19:30** Aratosteetako kuadrillen kalejira-lehiaketako, taberna eta kartel lehiaketetako sari-banaketa, Untzaga plazan. **19:00/21:00** Photocalla, Untzaga plazan. **19:00** Animazio musikala Latuna Bando txarangarekin, Eibarko kaleetatik. **23:30/01:30** Dantzaldia, Bada Giro taldearekin, Untzaga plazan.

## ZINEMA EUSKARAZ

**17:00** Isaiah Saxon zuzendariaren "Ochiren legenda", euskaraz (12 urtetik behar-koentzat ez gomendatua). 4 euro. Coliseo.

### KIROLA FAMILIAN

**17:30/19:30** Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gune irekia. Ipurua kiroldegia.

## DOMEKA 15

### ARATOSTE DOMEKA

**11:00** Aratosteetako kalejira, Usartza Txistulari Bandaren eskutik. **17:00** Playback Lehiaketa (LH 5-6 mailetako ikasleentzat), ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik, Untzaga plazan. **18:30** DJ Arno, Untzagan.



## ZINEMA EUSKARAZ

**17:00** Isaiah Saxon zuzendariaren "Ochiren legenda", euskaraz (12 urtetik behar-koentzat ez gomendatua). 4 euro. Coliseo.

### KIROLA FAMILIAN

**17:30/19:30** Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gune irekia. Ipurua kiroldegia.

### COLISEO KLAZINEMA

**19:30** "La naranja mecánica" (Stanley Kubrick, 1971). 5,5 euro. Coliseo.

## ASTELEHENA 16

### HITZALDIA

**18:00** "Pornografia deseraikitzen", AndretxeaSex zerbitzuaren eskutik. Elebitan. Sarrera librea. Andretxea.

## MARTITZENA 17

### INFORMAZIO-HITZALDIA

**13:00/15:00** "Aurretiazko borondateak". Gaztelaraz. Eibarko Ospitalea (-1 solairua, areto nagusia).

### ARATOSTE MARTITZENA

**17:00/18:30** Umeendako jolasak, Astixaren eskutik. Untzaga plazan. **18:30** Sardinaren entierro txikia, Jainagaren trikitilariak lagun-duta. Untzaga.

### BIDEO-FORUMA

**17:00/19:00** Emakumeen Istorioak: "Las constituyentes" (Zuz: Olivia Acosta). Pagatxa Emakumeen Elkartearen eskutik. Doan. Andretxea.

### FORMAZIOA

**17:30/20:00** "Gizontasuna korapilatzen" formazio-prozesua, Hiruki Larroaren eskutik. Portalean.

### MENDI JARDUNALDIAK

**18:30** Mendi Tour: Mendi-Filmeko onena. "Izarren Zaunka", "Into Altai" eta "Best Day Ever". 5 euro. Coliseo.

## EGUAZTENA 18

### AGURTZEN

**18:00/20:00** Aurretiazko borondateei buruzko informazio-zerbitzua, Ikasten-en eskutik. Untzaga gizarte etxea (Arrate aretoa).

## ANTZERKI JARDUNALDIAK

**19:00** "Kandida" (Tartean Teatroa, Bizkaia). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.



## EGUENA 19

### LIBURU AURKEZPENA

**18:30** "Memorias politicas" Jesus Egigurenen liburu aurkezpena. Portalea (areto nagusia).

### MENDI JARDUNALDIAK

**18:30** Mendi Tour: Mendi-Filmeko onena. "Cantos y Flores", "The Road We Never Rode" eta "K2 Mon Amour". 5 euro. Coliseo.

## ERAKUSKETAK

### Otsailaren 16ra arte

"Estali nazazu lorez", Jon Amorrorturen pintura erakusketa. Portalea.

### Otsailaren 21era arte

"Eibar: Laino guztien gainetik edo... azpitik", Jose Luis Irigoienaren argazki erakusketa. Topaleku.

### Otsailaren 28ra arte

"Zientzia-emakumeak argi-ra", Elhuyar Fundazioaren eskutik. Andretxea

ZINEA COLISEO



**“Sin piedad”**  
ZIENTZIA-FIKZIOA. THRILLER  
2026/AEB/100’  
Zuzendaria:Timur Bekmambetov  
Aktoreak: Chris Pratt, Rebecca Ferguson, Annabelle Wallis  
**Krimena. Distopia. Adimen artifiziala**

1 ARETOA

- 14an: 17:00
- 15ean: 17:00, 20:00

ANTZOKIA

- 14an: 19:45, 22:30
- 16an: 19:30



**“Tres adioses”**  
DRAMA. ERROMANTZEA  
2025/Italia/120’  
Zuzendaria: Isabel Coixet  
Aktoreak: Alba Rorhwacher, Elio Germano, Francesco Carril  
**Drama erromantikoa**

1 ARETOA

- 14an: 19:45, 22:30
- 16an: 19:30



**“Hamnet”**  
DRAMA  
2025/Erresuma batua/125’  
Zuzendaria: Chloé Zhao  
Aktoreak: Jessie Buckley, Paul Mescal, Zac Wishart  
**Biografikoa. Amatasuna. Aitatasuna**

2 ARETOA

- 14an: 17:00, 19:45, 22:30
- 15ean: 17:00, 20:00
- 16an: 19:30



**“Ochiren legenda”**  
ABENTURA. FANTASIAZKOA  
2025/AEB/95’  
Zuzendaria: Isaiah Saxon  
Aktoreak: Helena Zengel, Finn Wolfhard, Willem Dafoe  
**Familia zinema**

ANTZOKIA

- 14an: 17:00
- 15ean: 17:00

Jose Cordoba Bezares  
“Txokorra”

2026-02-09

Zure ondoan  
bizitakoa goxo  
gordeko dugu.  
Bidaia on, aita,  
aitxitxa

Arrate  
Iriondo Etxeberria

2. URTEURRENA  
2024/02/10

“Beti nere  
gogoan.  
Asko maite  
zaitut”

- ZURE LAGUNA -



943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak **AIUR**, gure txapelduna! Aurreko zapatuan 8 urte bete zenduaz!! Patxo handi bat famelixa guztiaren partez. Asko maite zaittugu!



Zorionak **ION!** Martitzenian 3 urte bete dozuz eta. Patxo haundixa etxekuen partez.



Zorionak **HAIZEA!** Martitzenian 6 urte bete zenduaz. Musu haundixa famelixa guztiaren partez.



Zorionak **MAREN!** Otsailaren 11n 2 urte bete zenduaz! Asko maite zaittugu! Musu haundi bat famelixaaren partez.



Zuen hilia heldu da barriro!! Otsaila!! ZORION ON ONAK **XARE (7), ZIORTZA (44)** eta **SUHAR (10)!!** Musu asko etxekuen partez.

|                                                                                                                               |                                                                                                                                                          |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p><b>FUNEUSKADI</b><br/>Grupo Asistea</p> <p><b>TANATORIO EIBAR</b></p>                                                      | <p><b>FUNERARIA MUGICA</b><br/>Funeuskadi</p> <p><b>TANATORIO CREMATARIO ELGOIBAR</b></p>                                                                |
| <p>24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951<br/><a href="http://www.funeuskadi.com">www.funeuskadi.com</a></p>            |                                                                                                                                                          |
| <p><b>Eibar:</b><br/>Otaola, 27</p> <p><b>Eibarko bulegoa:</b><br/>Bidebarrieta, 20</p>                                       | <p><b>Elgoibar:</b><br/>Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p><b>Ermuako bulegoa:</b><br/>Marqués de Valdespina, 16</p> |
| <p>Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao<br/>Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao</p> |                                                                                                                                                          |

**ESKERTZAK ETA URTEURRENAK**

Urkizu, 11 - solairuarte  
publizitatea@etakitto.eus

**688 62 76 89**

# Iragarki laburrak



943 20 67 76  
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

|                        |
|------------------------|
| <b>1. ETXEBIZITZA</b>  |
| 1.1. Salgai            |
| 1.2. Errentan          |
| 1.3. Konpartitzeko     |
| 1.4. Etxe trukaketa    |
| <b>2. MOTORRA</b>      |
| 2.1. Salgai            |
| <b>3. LOKALAK</b>      |
| 3.1. Salgai            |
| 3.2. Errentan          |
| <b>4. LANA</b>         |
| 4.1. Lan bila          |
| 4.2. Langile bila      |
| <b>5. IRAKASKUNTZA</b> |
| 5.1. Eskaerak          |
| 5.2. Eskaintzak        |
| <b>6. DENETARIK</b>    |
| 6.1. Salgai            |
| 6.2. Eman              |
| 6.3. Galdu/Aurkitu     |
| 6.4. Bestelakoak       |

|                                                                                                                                                 |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>3. LOKALAK</b>                                                                                                                               |
| <b>3.2. Errentan</b>                                                                                                                            |
| • Ipuruan, batez ere Mogel inguruan, garajea alokairuan hartuko nuke. 646369330.                                                                |
| <b>4. LANA</b>                                                                                                                                  |
| <b>4.1. Lan bila</b>                                                                                                                            |
| • Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 611557583.                                   |
| • Nagusiak edo umeen zaintzarako langilea eskaintzen da. Esperientzia eta disponibiltate osoarekin. 642450647.                                  |
| • Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Soziosanitario ziurtagiriarekin. Edozein ordu eta egunetan. 612418185.       |
| • Emakumea eskaintzen da edozein motako etxeko lanak burutzeko, nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Asteburuetan bakarrik. 613 287661. |
| • Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketa lanetarako edota ostalaritzako edozein lan motarako. 632768653.                          |
| • Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Soziosanitario ziurtagiriarekin. 602398328.                               |
| • Tituludun erizaina eskaintzen da pazienteak zaintzeko, mugikortasun arazoak izan edo ez. Baita umeak zaintzeko ere. 641834341.                |
| • Mekanika ingeniaria eskaintzen da edozein motatako lanak burutzeko: Igeltseritza, iturgintza, elektrizitatea, pintura... 641838914.           |
| • Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Eguerdiko 12:00etatik aurrera, edozein ordutan.                              |

|                                                                                                                                                              |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Soziosanitario ziurtagiriarekin. 678135914.                                                                                                                  |
| • Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. 643860541.                                                                             |
| • Emakumea eskaintzen da arlo soziosanitorian lan egiteko. Tituluarekin eta nagusiak zaintzeko esperientziarekin. 642578943.                                 |
| • Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako, tituluarekin, astean zehar eta asteburuetan lan egiteko prest. 633101852.                 |
| • Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaindu edota garbiketa lanetarako. Esperientzia eta ordutegi zabalarekin. 691675846.                             |
| • Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edota garbiketa lanetarako. Esperientzia eta ordutegi zabalarekin. 691675846.                                       |
| • Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak edota umeak zaintzeko, garbiketak egiteko edo sukaldari laguntzaile bezala aritzeko. Esperientziaduna. 614053038. |
| • Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak edota umeak zaintzeko, garbiketak egiteko edo sukaldari laguntzaile bezala aritzeko. Esperientziaduna. 631077623. |
| • Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketa lanetarako edota ostalaritzan lan egiteko. 602040399.                                                 |
| • Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko asteburuetan, interna bezala. 643584198.                                                                         |
| • Mutila eskaintzen da asteburuetan zerbitzari moduan edo denda batean lan egiteko. 652544839.                                                               |
| • Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, tituluarekin, baita garbiketa lanak egiteko ere. 602051567.                                                     |

|                                                                                                                                                                                              |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>4.2. Langile bila</b>                                                                                                                                                                     |
| • Sukaldaria behar da Debabarreneko jatetxe baterako. Esperientziarekin eta kotxearekin. Curriculuma bidali whatsapp-pe: 672258100.                                                          |
| • Estetizista eta fisioterapeuta behar da Eibarko ileapaindegiri baterako. Lan giro bikaina. 943208125.                                                                                      |
| • Pertsona nagusiaren zaintzarako emakumezkoa behar da. Interna moduan lan egiteko eta ziurtagiri soziosanitarioarekin. 606671290.                                                           |
| • Estetizista eta fisioterapeuta behar da Eibarko ileapaindegiri baterako. Lan giro bikaina. 943208125.                                                                                      |
| <b>5. IRAKASKUNTZA</b>                                                                                                                                                                       |
| <b>5.2. Eskaintzak</b>                                                                                                                                                                       |
| • DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.                                                                                                   |
| • Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitate prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe. |
| • DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.                     |
| <b>6. DENETARIK</b>                                                                                                                                                                          |
| <b>6.2. Eman</b>                                                                                                                                                                             |
| • Egoera oso onean dauden bi altzari oparitzen dira: 80 cm-ko zabalera eta 6 kajoiko egurrezko sinfoniera. 70 cm-ko zabalera eta 2 m inguruko altuera-egurrezko armairua. 658715978.         |

# ek!

Jarraitu  
gaitzazu gure  
**difusio kanal**  
berrietan



WHATSAPP



TELEGRAM



Zure eguneroko albiste boletina!





# IRAZABAL

## clínica dental



**Ainhoa Zulueta**  
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.  
Euskal Herriko Unibertsitatea.  
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian,  
Periodontzian, implantologian.  
Leongo Unibertsitatea.  
Diplomatua Aho Kirurgian.  
Bartzelonako Unibertsitatea.  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
Autran Institutua. Bartzelona.  
Etengabeko Formakuntza.  
New York-eko Unibertsitatea.  
Oklusioan Graduondoa.  
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:

**8:00**etatik **22:00**etara

Zapatuetan:

**10:00**etatik **14:00**etara

# Irribarreetan adituak

## Etor zaitez gu ezagutzera

**Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak**

**JARRAI IEZAGUZU**

**f Facebooken:** Clínica Dental Irazabal **www.clinicairazabal.com**



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**  
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**